

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2001eko azaroaren 9a / 471. zenbakia



KARTZELARIAREN ETXEA
ITXITA

Udalaren erabakiak kontrako
iritzi ugari eragin ditu herrian

PILOTA: ETXANIZ-OTAEGI LAU T'ERDIAREN BARRUAN/11 • KULTURA: MUSIKA KLASIKOA ASTEBURUAN/12




BERGARAKO BULEGO BERRIA




BERGARA
Ibargarai 3.
Tel. 943 76 97 97

LEGAZPI
Santikutz 8.
Tel. 943 73 05 25

10 URTEKO ESPERIENTZIA!



gelatzu s.l.



Zubillaga auzoa, 1 OÑATI. Tel.: 943 71 63 22



- Era guztietako azulejoak
- Bainu altzariak eta osagarriak
- Kabinak eta hidromasaje bainerak

ATREBENTZIAEZPADA/ Ze deitxozu etxe komertzialei jaiegunetan zabaltzeko emondako aukeria?



MERTXE ARANBURU
74 urte

Neri ez jat oso ondo pentsatzen. Astian sei egun zabalik eukitziakin nahikua dala pentsatzen jat. Jaiegunak, gaiñera, jai hartzeko die, eta ez lan egittek.




MAITE JUAN
28 urte

Kontsumitzailliei begira, ondo, baiña dendari txiki-kei ez dotse mesede haundirik egingo. Dana dala, kontsumitzaillioek astian sei egun dauzkagu eroste-ko, eta nahikua da.



RAQUEL CRIADO
25 urte

Ez jat ondo pentsatzen, den- da txikixei ez dotselako bat be lagunduko. Gaiñera, nik denda baten lan egitten dot, eta lau jaiegunian lan egin biharrak ez lostake grazia-rik egingo.




IGNACIO TABUENCA
54 urte

Ez nago horren alde, komer- tzio txikixei eragingo dotsen kaltiatatik, batez be. Kontsumitzaillioendako erosuagoa izango da, baiña eguneko hogeita lau orduak zabalik egotia be bai.



IÑAKI BILBAO
48 urte

Ondo, erosuagoa izango dalako. Baiña bueno, lan egin bihar dabenandako ez dot uste hain erosua izan- go danik. Ni ez naiz asko- rik juten, eta neretako ez da erosuagoa izango.



MIKEL FORTUNA
18 urte

Batetik, ez jat ondo pen- tsatzen, komertzio txikixek kompetentzia haundixagoa eukiko leukielako. Beste alde batetik, ondo, jaiegun baten zeozeren falta euki ezkerero erosi ahal dozulako.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK SAIHESBIDEKO LEHERKETAK Irakurle bat haserre eto- rri zaigu saihesbideko leherketengatik. Han inguruan bizi da, eta badirudi leherketak ezordutan egiten dituztela. Enpresa eraikitzaile-ak leherketak beranduen 22:00etan egingo zirela jakinarazi zien auzotarrei, atarian jarritako ohar baten bidez. Baina, askotan, 00:30ak ondoren edo geroago egin izan dituzte. /MONIKA BELASTEGI

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK /5

Kartzelariaren etxea itxita

Udalak hartutako erabakiak Jardu- ni eta gaztetxeari eragin die, batez ere. Erreakzio ugari izan da.

KIROLA /10

Saskibaloiko senior taldea

David Urbinak zuzentzen duen senior mailako taldea Alde Zaharrari nagusi- tu zitzaion.

KULTURA /12

Argazki erakusketa

Kirol Argazki Lehiaketan parte hartu duten argazkiak ikusgai kultura etxean hilaren 18ra arte.

IRAKURLEAK MINTZO

ELKARRIZKETA BIDEZKO IRTENBIDEAK

Urriaren 27an, zapatua, gaz- tetxearen hustea dela eta bergarar gazteek egindako manifestazioak eragindako ondorioen aurrean arduratuta, hau da, gazte bat Ertzaintzaren egoitzan ordu pare batez atxilotuta izan zela, gurasooi eta atxilotuari berari, seguru, amaitu ezinekoa egin zitzaigun denbora: guztioi, Udalari, gazteei eta bergararrei, oro har, eskatuko nieke hausnar dezatela, aurrerantzean, ondorio latzak ekar litzakeen edozein liskar saihesteko moduan joka dezaten. Nire ustez, elkarrizke- taren bidezko irtenbidea espero dezakegu.

ANA ILARDUIA UNAMUNO

IRAKURLEAREN TXOKOA

BERRIGARA n zure gutuna argitaratu nahi baldin baduzu, beranduen martitzen goizean egon beharko da gutuna erredakzioan. BERRIGARA bertara ekarri (Irizar jauregia, Barrenkalea 33, behea), edo posta elektronikoz bidal dezakezu, mbelastegi@goiena.com helbidera. Gutunaren luzerari dagokionez, gehienez 1.300 karaktere (espazioak barne) izan beharko ditu. Kopuru hori baino gehiago dituzten gutunak laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea. Gutunek izen-abizenak edo NAN zenbakia izan beharko dute.

BERAIEK DIÑO/E Jon Altuna



Arazoak hamaika

Irailaren 11n Estatu Batuen bihotzean sartutako eztenak min eman die eta zakur amorratuak bezala erantzun dute. Zaunka lehenen- go eta haginka gero, zeini eta kulparik ez duenari, agian. Gerra deitzen diote erasoari, gainera. Mendekuari...Afganis- tango herria bere biziarekin ordain- tzen ari da mende- kua. Batzuk zehar- kako eragin deituta- koen ondorioz hil dira. Gehienak, ihesi, hotzez eta goseak.

Bi hilabete beteko dira igande- an XXI. mendea benetan hasi omen den egune- tik. Baina azaroaren 11 ez dadila hamaikaren arazoa edo erasoak hamaika izan. Aldake- ta handiak ekarriko dituen eguna omen da, baina gauzek antzera jarraitzen dute. Pobre- ak gero eta pobreago, bizi ezinik, eta aberatsak gero eta botere gehiagorekin. Eguneroko gosez edo senda daitezkeen gaixotasunez hiltzen da jendea hirugarren pisuan, lehenengo- an oparotasunean bizi garen

bitartean.

Mundua erotu da. Gaur egun, politika ez da bestearekin eztabaidatzea konbentzitzeko, baizik eta beldurtzea da helburua, bestea zure esaneta- ra jartzeko. Euren nagusitasu- na eta indar militarra erakutsi behar dute batzuek noizean

“Nagusitasuna eta indar militarra erakutsi behar dute batzuek, mundu osoak euren esanetara jarrai dezan”

behin, mundu osoak euren esanetara jarrai dezan. Ez da demokraziarik mundu mailan eta bonbek ez dute konponbiderik ekarriko, gorroto gehiago baizik. Gastu militarra goseari eta gaixota- sunei aurre egiten erabili beharko litzateke.

Bien bitartean, inor ez da EEBBetako agintarien aurka altxatzen. New York-eko ekintza beldurgarriaren kolpeak jota, hunkiturik, txeke zuria eman zaie nahi dutena egiteko. NBERen isiltasuna esanguratsua da. Leherketa eta leherketa arteko isiltasunean denok hausnartu beharko genuke. Nik, behintzat, ez dut Afganistango erasoaren konplize izan nahi.

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea, 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Iñaki Iturbe

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Maitane Arizabaleta
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elokoroberebizar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurilaritzako Kultura saila



Gipuzkoako Foru Aldundia



Bergarako Udala



Antzuolako Udala



Elgetako Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 9
GUALLAR, San Antonio 5. 943 76 11 05

ZAPATUA, 10
ESTELLA, Matxiategi 5. 943 76 19 63

DOMEKA, 11
ESTELLA, Matxiategi 5. 943 76 19 63

ASTELEHENA, 12
MOZOS, San Pedro 4. 943 76 12 15

MARTITZENA, 13
CAMACHO, Oxirondo 4. 943 76 11 74

EGUAZTENA, 14
PUY, Barrenkale 25. 943 76 16 87

EGUBAKOITZA, 15
GUALLAR, San Antonio 5. 943 76 11 05

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40

Bergarako udaltzaingoa 943 77 91 06

Antzuolako udaltzaingoa 943 76 62 46

Ertzaintza 943 76 53 40

Osasun Etxea 943 76 24 40

Asepeyo 943 76 16 43

Pakea 943 76 13 49

Angiozarko medikua 943 78 90 27

Antzuolako medikua 943 76 62 23

Odol emaleak 943 76 16 24

Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

GARRAIOAK

Taxiak. 943 76 19 50

UDALA

Bergarako Udaletxea 943 77 91 00

Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46

Udal Artxiboa 943 77 91 32

Igerilekuak 943 76 20 51

Kultura Etxea 943 77 91 58

Liburutegia 943 77 91 62

Kirolegia 943 76 56 41

Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia 943 76 14 92

Erregistroa 943 76 13 15

Jardun 943 76 36 61

Idolaz 943 76 65 08

Jubilatuena Etxea, Bergara 943 76 21 40

Antzuolako erretiratuena elk. 943 76 62 71

Postetxea 943 76 26 85

Bedelkar 943 76 04 68

Akulu AEK 943 76 05 18

Udal euskaltegia 943 76 44 53

Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

Santa Marina	Domekak: 10:30.
Domekak:	Labegarieta
11:30, 13:00.	Domekak: 11:00.
Zapatuak: 19:00.	San Lorentzo
Lanegunak: 19:15.	Zapatuak:
San Pedro	20:00.
Domekak:	Angiozar
09:30, 12:30.	Domekak:
Zapatuak eta	11:30.
lanegunak: 19:00.	Moja
Sierbak	Zaharrak
Lanegunak: 19:30.	Lanegunak: 20:00.
Osintxu	Mizpirualde
Domekak: 12:30.	Lanegunak: 11:45.
Zapatuak: 19:00.	Zapatuak: 17:30.
Elosu	Antzuola
Domekak: 10:30.	Domekak:
Ubera	09:00, 11:30.
Domekak:	Zapatuak eta
10:30.	lanegunak: 19:30.
San Juan	Uzarraga
Domekak: 11:00.	Domekak: 10:00.
San Prudentzio	

URTE-MEZAK

Santa Marina
Hileko 2. astean, domekan 11:30ean.

San Pedro
Hileko 3. astean, domekan 12:30ean.

OHARRAK

1952KO KINTOAK
1952ko kintoek (1931n jaiotakoek) anaia arteko eguna ospatuko dute azaroaren 17an. Txartelak Zumelaga jatetxean edo Irrintzi kafetegian.

1938AN JAIOTAKOAK
1938an jaiotakoek bazkaria azaroaren 17an Pertxan. Izenematea: 943 76 15 36 (Mariasun Gardoki) edo 943 76 18 64 (Migel Lazkano).

1955EAN JAIOTAKOAK
1955ean jaiotakoek afaria azaroaren 17an Zumelaga jatetxean. Izena ematea Frontoiko tabernan.

1944AN JAIOTAKOAK
1944koen afaria azaroaren 24an Azpeitxi jatetxean. Aurretik meza Santa Mariñan, 19:00etan. Izenematea Sanchez ile apaindegian.

1957AN JAIOTAKOAK
1957koen urteroko ospakizuna azaroaren 24an. Izena ematea Intxorta tabernan.

1950EAN JAIOTAKOAK
1950ekoen afaria abenduaren 1ean Tartufo jatetxean. Izena ematea Kutxan (2.000 pezeta) azaroaren 27ra arte.

ODOL-EMATEA
Odol-ematea eguaztenean, hilak 14, Seminarioko lokalean, 18:30ean.

JARDUNENAGENDA

LOKAL ALDAKETA
Jarduneko bulegoa oraingo Errotalde jauregian dago. Behin-behineko telefonoa: 605 71 24 69.

ASTEBUKAERAKO EKINTZAK
Zapatu arratsaldean gaztetxoentzat jokoak izango dira Kartzelan. Domekan, berriz, zine emanaldia 17:00etan.

URBANOENORDUTEGIA

San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta / Olabarretetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTEBERRIGARAN

Bideluze eta Elizburu bikain Gorlako Moto Igoeran

Angel Bideluze bergararrak irabazi zuen 1991ko azaroaren 10ean jokaturako IV. Gorlako Moto Igoera. Bideluze Euskadiko txapel-dun izan zen urte hartan. Txapelketako hamahiru probetatik zortzi irabazi zituen. Gorlako proban Alex Elizburu bigarren izan zen.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Ankalarua"

Txanka mehea. Hanka meheak dituena. Sin. *Ankame*, *txankame*. -*Ankameia be bai tta ankalarua be bai.*



ASTEKO FILMAK

'LOS OTROS'

ZUZENDARIA: ALEJANDRO AMENABAR.
AKTOREAK: NICOLE KIDMAN, FIONNULA FLANAGAN, CRISTOPHER ECCLESTONE.

HARIA. Gerran dagoen senarraren faltan, *Grace-k* (Nicole Kidman) zorrozki heziko ditu seme-alabak etxetar misterioitsu baten, Jerseyko Irlan, 1945. urtean.

TOKIA ETA ORDUA. Novedades aretoan. Egubakoitzean 22:30ean, zapatuan 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean, domekan 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean, eta astelehenean 19:30ean.

PUNTUAZIOA: ●●●●●



'THE FILTH AND THE FURY'

ZUZENDARIA: JULIEN TEMPLE.

HARIA. Disko bakarra kaleratu arren, Sex Pistols taldeak zere-san ugari eman zuen 1970eko hamarkadan. Julien Temple zinemagileak taldearen inguruko dokumentala egin du: Sid Vicious eta taldekideen gorabeherak eta orduko giroa azaltzen ditu.

TOKIA ETA ORDUA. Novedades aretoan. Eguenean, hilak 15, 20:00etan. Jatorrizko bertsiotan.

PUNTUAZIOA: ●●●●●



LASAGABASTER

ZURE KONFIANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

KARTZELA ZAHARRA/ Udalak duela bi aste dekretuz itxi ostean, Jardunen bulegoa kultura etxeko satora eraman dute eta BGAK obrekin jarraitzen du

Kartzela zaharra ekitaldi areto gisa erabil daitekeen aztertzen dihardu Udalak

MONIKA BELASTEGI

Urriaren 25ean, kartzelariaren etxea itxi zuen alkateak dekretuz. Arrazoia etxearen egoera kaskarra izan da. Udalaren erabakiak kontrako iritzi ugari eragin du, izan ere, han, gaztetxea eta Jardunen bulegoak daude. Udalaren jardura gaitzetsi egin dute.

Bergarako Gazte Asanbladako (BGA) kideek azaldu dutenez, urriaren 25ean, 19:00ak aldera, eta aurrez bestelako jakinarazpenik jaso barik zeudela, udaltzainak eta brigada kartzelariaren etxera joan ziren gaztetxea apuntalatu eta ixteko aginduarekin. Jarduneko ordezkarien esanetan, agindu bera jaso zuten zertxobait lehenago, eta haiek ere bulegoa utzi beharra izan zuten.

Bi taldeek jasotako dekretuak honako arrazoiak ematen zituen kartzelariaren etxea ixteko: bate-tik, BGAK obra ilegalak egiten ziharduela gaztetxean, eta beste-tik, eraikinaren egitura egoera kaskarrean dagoela eta arrisku-tua izan daitekeela.

Itxierak hainbat erreakzio eragin ditu: bai BGA eta Jardun Euskara elkartetik (zuzenean eragin baitie gertakariak), baita beste talde eta herritar batzuegandik ere, Batasuna, esaterako. Hiru talde horiek gaitzetsi egin dute Udalaren jarrera. Gainera, gertakariak ondo ulertzeko historia apur bat egin behar dela gogoratu dute, baita BGA obrak zergatik egiten ari zen ulertzeko ere.

ARAZOAREN SORBURUA

Legealdi honen hasieran gazteek egindako kanpaina baten ondorioz, Gobernu taldeak gaztetxea kartzela zaharrean egitea onartu zuen. Han, Jardun elkartearen bazegoen, ondorioz, bi taldeek denbora batez eraikina konpartitu beharra adostu zen; Jardunendako kultura etxearen ondoan dagoen eraikin zaharra birgaitu arte. Gauzak horrela, kartzelariaren etxea eta ekitaldi aretoa konpartitu dituzte bi urtez bi taldeek.

Gobernu taldearen erabaki hori kontuan hartuz, iazko irailan gaztetxea kartzela zaharrean finkatzeko obra-proiektua aurkeztu zuen Udalean BGAK. Kartzela dagoenetan utzita ekitaldiak egiteko erabiliztea, eta kartzelariaren etxea egokitzea, hau da, beheko solairuan taberna, lehenengoan erabilera askotarako gelak eta ganbaran Txapa irratiak jartzea. Proiektu hori onartu egin zuen Udal Gobernu taldeak.

Hala ere, Udal Gobernuak ez zituen obrak hasi, Diputazioaren arabera kartzela zaharreko aretoak ez dituelako segurtasun bal-



Egubakoitzetako batzarrean zeudela jaso zuten BGAKoek egoitza ixteko dekretua.

“Ez dugu ulertzen zergatik itxi duten kartzelariaren etxea, bat-batean eta modu txarrean”

dintzak betetzen. Horrela, “ekitaldietarako tokirik gabe geratu ginen, eta kartzelariaren etxea ere ez ziren konpontzen hasi, eta bes-

Batasunak uste du obrak bukatu behar direla, betiere behin-behineko irtenbidea dela jakinda

teren ezean guk ekin genion, apa-rejadore baten gidaritzapean”, azaldu dute BGAKo kideek. Lanok apiril aldera hasi zituzten BGA-

Kartzela zaharra oso-osorik hartu eta irtenbidea aurkitu nahian dabil Bergarako Udala

koek, eta Udala jakinaren gaine-an zegoela adierazi dute: “Eta ez dugu ulertzen, orain, bat-batean eta formak batere zaindu gabe,

zelan eman duten ixteko agindua”. Hala eta guztiz ere, BGAKo kideek obrekin jarraitu dute, “Udalak gurekin adostu zuen proiektua ez duelako bete eta oraindik zuzenean ez digulako beste irteerarik eman”. Gainera, gaztetxea ez da taberna soila: “Tailerrak, hitzaldiak, ikastaroak... antolatu izan ditugu orain arte, hilabetekari bat ere argitaratzen hasi gara, eta obrak bertan behera utziko bagenu, auskalo noiz edukiko genukeen beste egoitza bat dinamika horrekin jarraitu ahal izateko”.

JARDUN KULTURA ETXEAN

Jardunek ere utzi egin behar izan ditu kartzelariaren etxean dituen bulegoak. Orain, kultura etxeko sotoan daude. Jardunekin ere egoitza aproposa egokitzea adostu zuen Udalak duela bi urte, elkarteko kideen esanetan; kultura etxearen alboko eraikina, hain justu. Hala ere, oraindik zain daudela adierazi dute. Bestalde, Udalarekin duten hitzarmenean bulegoak eta ekintzagunea bata bestearen ondoan egon behar direla dago jasota. Orain, bulegoa kultura etxean dago eta ekintzak kartzela zaharrean egiten jarraitzen dute.

ALKATEAREN ADIERAZPENAK

Victoriano Gallastegi alkateak adierazi du honi guztiari irtenbidea eman nahian dabilzela.

Gallastegik azaldu duenez, gazteei kartzela zaharreko egoitza utzi zitzaizenean ez zekiten aretoak ez zituela segurtasun neurriak betetzen. Hori, gazteek presatutako obra proiektua Diputazioari bidali ostean jakin izan zuten. Horrela, eta gazteei kartzela zaharrean kontzertuak egin ezin direla adierazita, kartzelariaren etxearen inguruan beste proposamen bat egiteko eskatu zieten. Baina “oraindik ez digute aurkeztu, eraikina oso-osorik erabili nahi dutelako, eta baimenik gabe obrei ekin zieten”. Horrela, “Jardunek kartzelariaren etxea egoera kaskarrean zegoela esaten zuen idatzia irakurri ostean, Udaleko teknikoa hara joan eta haren txostena ondo irakurri eta aztertu ostean, eraikina ixtea erabaki genuen, baina zinegotzi guztiak jakinaren gainean zeudela”.

Arazoari irtenbidea eman nahian, kartzela zaharrean inguruan azterketa eskatu diote enpresa bati alkatearen esanetan. Kartzela zaharri (ekitaldietarako aretoa eta kartzelariaren etxea) irtenbidea topatzeaz arduratuko da, hau da, ekitaldietarako erabili ahal izateko posibilitaterik duen aztertuko du. Gauzak horrela, hil amaierarako alkateak erantzuna izango du:

Batasunaren iritzi eta proposamena

Batasunako zinegotziek ere gaiaren inguruko kezka azaldu zuten martitzenean prentsaurrekoan. Gobernu taldeak izan duen jarrera salatu zuten Batasunako kideek, baita arazoari irtenbidea emateko ideiak proposatu ere. Gainera, gogora ekarri zuten ez dela lehenengo aldia proposamenak egiten dituztela: legealdi hasieran, Santanako lorezainaren etxea birgaitu eta han gaztetxea kokatzea proposatu zuten. EAJ/EAK ez zuten ideia onartu, eta horren ordez kartzela zaharrean egitea proposatu zuten, Jardunekin batera kartzela zaharra eta kartzelariaren etxea konpartituta.

Hala ere, horrek aurrera egin ez duela azaldu zuten Batasunakoek, “batetik, kartzela zaharrean hainbat ekitaldi ezin delako egin, kontzertuak, esaterako, eta bestetik, Gobernu taldeak ez duelako kartzelariaren etxea konpondu”. Horren

guztiaren aurrean, logikoa ikusten dute Batasunakoek BGAK obrei ekitea. Horrez gain, Gobernu taldeak obrak egiten ari zirela bazekiela gaineratu zuten, eta ondorioz, ez dute ulertzen” nondik nora etorri den, Jardunek eta BGAK ezer jakin gabe, alkatearen dekretuz egubakoitz iluntze baten eraikina ixtea”. Era berean, gaineratu zuten Gobernu taldeko hainbat kidek itxieraren berririk ez zutela, eta alkatea dekretua sinatu eta oporretan joan zela.

Horren aurrean, beste proposamen bat egin zuen arazoari irtenbidea eman nahian: gazteekin batera kartzelariaren etxean hasitako obrak amaitzea, betiere toki hori behin-behineko irtenbidea dela jakinik. Eta kartzela zaharrik ez baditu gazteendako lokala egokitze baldintzak betetzen, adierazi zuten agian inbertsiorako garaia dela.



Astelehenean hasi zituzten bi armarriak zaharbertitzeko lanak, eta bi milioi eta erdiko aurrekontua dute.

ZAHARBERRITZEA/Eudald Gillamet aditua arduratuko da zaharbertitzeaz

Hasi dira lanak Trinitateko komentuko armarrietan

MONIKA BELASTEGI

Hasi dira Goenkalean dagoen Trinitateko komentuarien fatxadako bi armarriak zaharbertitzeko lanak. Lanaren ardura Eudald Gillamet zaharbertitzaileak izango du, duela bi urte Egin Mallea etxearen zaharbertitzeaz arduratu zen aditu berak, hain justu.

Bergarako Udalak irailaren 10ean hartu zuen Trinitateko komentuarien fatxadan dauden bi armarriak zaharbertitzeko erabakia, eta dagoeneko hasi dituzte lanak.

Armarriak nahiko egoera kaskarrean daude. Denboraren joan-etorriak ez die onik egin: armarriak higatuta daude eta hainbat zati erori ere egin zaizkie. Hori horrela izanik, zaharbertitze lanak berehala hastea beharrezkoa izan da kalteak handiagoak ez izateko. Lanen aurrekontua bi milioi eta erdi pezetakoa da, eta Turismo departamentuaren aurrekontuaren barruan kokatzen da.

Zaharbertitze lanak joan den astelehenean hasi zituzten, eta Eudald Gillamet zaharbertitzaileak zuzenduko ditu. Gillamet

izen handiko aditua da, mundu osoan egin du lan, eta bigarren aldia izango da Bergaran lan egiten duena: duela hiru urte, Egin Mallea etxearen berritze lanez arduratu zen.

LEHENENGO, GARBITU

Lehenengo eta behin, armarriak garbitu egingo dituzte, eta horren ondoren, harria gogortu egingo dute. Erorita dauden zatiei dagokien, horrela utziko dituzte.

Horrekin guztiarekin bukatu ostean, babesteko geruza bat emango diote, eguzkiak, euriak eta abarrek kalterik ez eragiteko.

Dispertsioaren aurkako mozioa gaur osoko bilkuran

MONIKA BELASTEGI

Gaur, egubakoitza, 18:00etan, ezohiko osoko bilkura egingo da Udalean. Batasunak bi mozio aurkeztuko ditu udalbatza osoak onar ditzan: presoan dispertsioaren inguruan eta azken atxiloteten gainean.

Gaur arratsaldean ezohiko osoko bilkura egingoak dira Udalean. Gai zerrendak bi mozio jasotzen ditu, Batasunak aurkeztutako mozioak, hain justu. Bata euskal presoan dispertsioaren ingurukoa da, eta bestea, Polizia Nazionalak egindako azken atxilotetei buruzkoa.

Lehenengoari dagokionez, bost puntutan oinarritzen da, eta honakoa onartzea eskatuko dio udalbatza osoari, besteak beste: Frantziako eta Espainiako estatuari exijitza Euskal presoan dispertsioarekin bukatzea, duela gutxi istripuan hil diren Iñaki

Sáezen eta Asier Herizen moduko gertakizun gehiago izan ez dadin. Eta, horrekin batera, Europako parlamentuaren eta in-tantzia judizialen aurrean dispertsioaren salaketa egiteko kon-promisioa hartzea.

Horrezaz gain, Batasunako kideek dei egiten diete Udaleko hautetsiei azaroaren 10ean Sor-luzen dispertsioaren aurka egingo den ekimenean parte hartze-ko.

AZKEN ATXILOKETAK

Bigarren mozioa Polizia Nazionalak egindako azken atxilotetei ingurukoa da.

Beste gauza batzuen artean honakoa eskatuko diote udalbatzari: Amnistiaren Aldeko Batzordeak egiten duen lan eta kon-promisioarekin bat egitea, eta Polizia Nazionalak azken egunotan atxilotu dituen hamahiru lagunak baldintzarik gabe askatzeko exijitza.

LABUR

Autobideko beste zati bat egiteko obrak esleitu ditu Diputatuen Kontseiluak

Diputatuen Kontseiluak Gasteiz-Eibar autobideko beste zati bat egiteko obrak esleitu ditu. Bergarako iparraldetik Elorregira arteko obrak, hain zuzen ere.

Obra horiek esleitzeko arrazoia da zati horrek eginda egon behar duela Ekialdeko saihesbidearekin eta Bergara iparra-Bergara hegoalde zatiarekin izango duen zuzeneko lotunea ireki ahal izateko.

Esleitu dituzten obrak autobidearen enborreko 1.200 metro dira. Elorregi ingurutik, Deba ibaiaren eskuinaldean, Ipiñarriko zubi bidearen hasiera artekoak, hain zuzen ere.

Hainbat lagunek kale bilkura egin zuten eguenean J. M. Lidonen hilketa gaitzesteko

Joan den eguenean, hilaren 8an, hainbat lagunek kale bilkura egin zuten Udaletxe parean ordu laurdenez. Kale bilkuraren arrazoiak izan zen eguazten goizaldean Getxon ETAk tiroz hildako Jose Mari Lidonen heriotza gaitzestea.

Pagoaga eta Irizar medikuek kontsulta orduak aldatu egingo dituzte

Datorren astetik aurrera, Pagoaga eta Irizar medikuek ambulato-rioan duten kontsulta-ordutegia aldatu egingo dutela eman dute jakitera. Ordutegi berria hauxe izango da: Pagoagarena 12:00etatik 14:15era, eta Irizarrena, berriz, 10:00etatik 12:15era.

IRURAK PINTURAK S.L.

ERA GUZTIETAKO LANAK
MOKETA ETA SINTASOLA
IZTUKU ESPONJATUA

PAPER PINTATUAK
HAREA ZORROTADA
IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOAK: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
FAXA: 943 76 09 32



gizon & emakume

Barrenkalea 35
BERGARA



BANKINTER

%4,95 etik aurrera lehen 3 urteetan

Euribor-a + **%0,50** garbia, ondoren*

*Irakiera
komisioa:
%0,25
35 urte
bitartean

ELKARRIZKETA

NAIARA ALONSO/BEKADUNA INDIAN

“Bizitzeko modu oso ezberdina erakutsi dit Indiako egonaldiak”

MONIKA BELASTEGI

Naiara Alonso, 25 urteko gaztea, Indian izan da duela oso gutxira arte, urriaren 31ra arte, hain justu. Eusko Jaurlaritzaren beka bat dela medio, ia hamar hilabete eman ditu han, lanean. Hauxe kontatu digu Indiako egonaldiaz.

Nolatan joan zinen Indiara lanera?

Eusko Jaurlaritzak eskaintzen dituen internazionalizazio beka baterako aurkeztu nintzen. Beka horiek, atzerrian lantegiak dituzten enpresa euskaldunetan lan egiteko dira. Eta egia esan, ez nuen bereziki Indiara joateko asmorik.

Horrela, hainbat enpresatako zuzendariekin elkarrizketak izan nituen, eta Gernikako Rinder enpresak nigan interesa zuela esan zidaten, Indian duen enpresa batean lan egiteko.

Rinderreko zuzendariak egin zidan elkarrizketa hartan, Indiako egoera oso beltz erakutsi zidan: kutsadura handia dagoela, giroa oso zaila, jende ugari dagoela, kalean bakarrik ezingo nintzela ibili... Hori horrela, elkarrizketan bertan jende ugari ezezkoa eman zion Indiako aukerari.

Zuk ez.

Zalantzan egon nintzen, baina horren gogo handia nuen kanpora joateko, amaren eta izebaren animoarekin joan egin nintzen.

Zein lan egin duzu Gernikako enpresa horrek han duen lantegian?

Enpresaritza arlotik joan nintzen, eta batez ere marketing arloan aritu naiz. Baina beste gauza batzuk ere egin ditut.

Zein herritan egon zara?

Pune herrian, Bonbaitik ehun eta hirurogeita hamar kilometrorra. Eta ia lau milioi biztanle ditu. Beste bekadun batekin bizi nintzen etxe batean, atzerritar ia gehienak bizi diren auzo berean. Bizitzeko herri aproposa da.



MONIKA BELASTEGI

“Rinderreko buruak egin zidan elkarrizketa hartan, India oso beltz aurkeztu zidan”

Rinderreko nagusiak esan bezain beltza iruditu zaizu India?

Ez. Dena den nik uste nagusiak ere aukeraketa modu bat bezala erabili zuela hori. Eta baita, behin hara joanda, txokea horren handia ez izateko. Niri ez

“Ez zait horren beltza iruditu. Bakoitzak zein begirekin begiratzen duen da kontua”

Zait horren beltza iruditu, baina hori norberak zein begirekin begiratzen duen ere bada.

Zer aportatu dizu hamar hilabeteotako egonaldiak?

Gauza asko. Mundu guztiko lagunak egin ditut. Eta bizitzeko beste modu bat ere ezagutu dut.



LA GARCILLA ALDIZKARIA

Iazko ekimenean, hogeita bost lagun inguru batzen ziren irteerako.

Hegaztiak ikusteko irteera gidatua Santoñara zapatuan

MONIKA BELASTEGI

Iaz egin bezala, aurten ere behaketa irteera sorta antolatu dute Mendia Bizirik eta Pol-Pol Mendizale taldeak.

Guztira sei irteera antolatu dituzte, hiru sailetan banatuta. Lehenengo sailean, kostaldeko, barnealdeko eta ibaialdeko hegaztiak, eta harrapariak landuko dituzte. Bigarren sailean, ibaietako ugaztunetan oinarrituko dira, eta hirugarrenean geologia landuko dute.

EDOZEIN ZALERENDAKO

Behaketa irteera horiek gidatuak izango dira. Irteera guztietan adi-

tu bat egongo da espezieak ezagutarazi eta bereizten laguntzeko. Beraz, edozein zalek har dezake parte irteerotan. Gainera, Bergarara ez ezik, eskualde osora zabaldu dute deialdia.

Lehenengo irteera bihar, zapatua, izango da, Santoñara, eta kostaldeko hegaztiak landuko dituzte. Izan ere, kostaldeko hegaztiak ikusteko sasoi ona da hau. Irteera ordua 08:00etan da, Pol-Pol taberna parean. Interesatuak prismatiko edo teleskopioa eramatea baino ez dute, eta izan ezean, antolatzaileek utziko dizkiete. Informazio gehiago telefono zenbaki honetan jaso dezakezue: 943 76 48 51.


LABUR

Hitzaldia, Pertxa elkartearen 25. urteurrena ospatzeko ekitaldi sortaren barruan

Abenduaren 8an hogeita bost urte beteko dira Pertxa elkartearen sortu zutela. Hori horrela, elkartearen kideek hainbat ekitaldi antolatu dituzte urteurrena ospatzeko.

Ekitaldi horien artean, azaroaren 11n, hitzaldi-dastatzea antolatu dute Pertxa elkartearen. Hitzaldia Patxi Arakama Altsasuko Katealde artisau produktuetako ordezkariak emango du. Hitzaldiaren gaia ahatekiak da, eta dastatuko dituzten produktuak ere ahatekiak izango dira.

Horren ondoren, afaria egongo da. Interesatu guztiek elkartearen eman dezakete izena azaroaren 11 baino lehen.



Ur-bide
ITURGINTZA

Zubieta, 28-behea. BERGARA. 943 76 00 57. 630 261 617

PINTXO eta BOKADILLOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

BERGARAN
BULEGO BERRIA





BERGARA
Ibargarai 3.
943 76 97 97

LEGAZPI
Santikutz 8.
943 73 05 25

**10 URTEKO
ESPERIENTZIA!**



943 76 20 61
BERGARA



ARABAKO ONDDOAK ETA SEGOVIAKO ASTAPUTZAK

Hau da hau pare! Batek bost kiloko astaputza topatu zuela-eta deitu zigun; besteak, berriz, guztira 2,300 kilo pisatzen zuten hiru onddo aurkitu zituela-eta. Pablo Pascualek bost kiloko astaputzak ekarri zituen Segoviatik. Argazkikoa, hala ere, bi kilokoa da. Mordoa ei daude han, baina ez pentsatu hemengo astaputz mota berdina denik; honako hau *Licperdon gigantea* motakoa da. Segovian, gainera, txanpinoiak bezala jaten ei dituzte; hori bai, txikixeagoak direnean. Pedro Andriuak, aldiz, hemen arrakasta handiagoa duten onddoak ekarri zizkigun Araba aldetik. Guztira 2,300 kilo pisatzen zuten hiru onddo topatu zituen. Baina hori ez da guztia, ez horixe! Izan ere, duela hiru aste, egun bakar baten, 152 onddo batu zituen Pedrok. Sekretua basoan, hara eta hona, asko ibiltzea ei da. Hortaz, badakizue, euririk egin ez duela-eta, ez dago aitzakiarik.




KUADRILLATEGI, SUKALDEAN FIN-FIN

Lapiko eta su artean pasatu zuten arratsaldea Kuadrillategi egitasmoan parte hartzen ari diren gazteek joan den urriaren 27an. Baina ez ziren sukaldean aritu, Seminarioko patioan jarri zuten behin-behineko sukaldea. Denetarik egin zuten: batzuek patata-tortillak, beste batzuek patata frijituak; pintxoak ere bai; eta txokolate-tarta egitera animatu zenik ere izan zen. Hortaz, janari goxoa prestatzen ikasteko eta, era berean, herriko beste koadrila batzuekin harremana izateko aukera polita izan zuten. 31 lagun aritu ziren guztira. Dena prest zegoenean, zelan ez, meriendatzeko ordua ailegatu zen. Prestatutako guztia, barrura! Ez zen, ez, jatunik falta izan! Bihar, berriz, graffitien txanda izango da.



GOIERRI AUTOGIDARIEN ESKOLA




Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA



Irala 3. Tf. 943 76 12 35
Matxiategi 34. Tf. 943 76 23 37
BERGARA



943 76 48 08.
Zubieta 26
BERGARA

GARRAIOAK ANDUZU TRANSPORTES

BERGARA
607 349 043



Grua zerbitzua

Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak

BERGARARRAKMUNDUAN

TOTONI RODRIGUEZ

43 URTE / JATETXE BATEKO UGAZABA / NEWARK

“Nahikoa diru daukadanean Bergarara joango naiz bizitzera beharbada”


AINTZANE IRIZAR

Hemezortzi urte daramatza Totonik Estatu Batuetan. Newarken bizi da, New Yorketik 10 bat kilometrora. Jatetxe bat dauka, *Quixote*. Brasildar batekin dago ezkondua, eta bi alaba dauzka.

1980ko hamarkadako krisialdiaren ondorioz alde egin zuen Totonik. Garai hartan Cartonajes Zamak-en ari zen lanean; hura itxi zutenean langabezian geratu zen. “Hiruzpalau hilabete egin nituen langabezian; Estatu Batuetan bizi ziren lagun batzuk animatuta, hara joatea erabaki nuen”.

Rahway-ra joan zen lehen-dabizi; harrezkero, Los Angelesen eta Arizonan ere bizi izan zen, besteak beste.

Hizkuntzarekin ez zuen arazo handiegirik izan; “hasieran, noski, kostatu zitzaidan, baina segituan hasi nintzen ulertzen eta hitz egiten”.



Estatubatuaren oso inpresio ona izan zuen hasieratik; izan ere, asko lagundu ei zioten. “Harritu egin ninduen hain jende jatorrarekin topo egiteak”.

Jatetxe bateko ugazaba da, esan bezala, Ttoni. Duela lau urtetik dauka negozioa, eta

“Harritu egin ninduen Estatu Batuetan hain jende jatorrarekin topo egiteak”

pozik dago, baina lan larregi ematen ei dio. Bera da ugazaba bakarra, ez dauka bazkiderik, eta ordu asko ematen ditu jatetxean: “goizeko bederatzietan zabaltzen dut, eta ordu batzuk jai hartzen ditudan arren, goizaldeko 3:00ak aldera arte ez naiz etxera itzultzen”.

Bergarako jende askok ezagutzen du Ttoni, eta azaldu digunez, Estatu Batuetara oportetara joaten den jende asko joaten zaio bisitan.

Datorren urtarrilean Bergarara etortzeko asmoa dauka, hilabete pasatzera. Gorlan paseatzeko eta bere herrian lasai-lasai egoteko irrikitan dago. “Nahikoa diru daukadanean, lanik egin beharrik gabe bizitzeko adina daukadanean, beharbada, Bergarara itzuliko naiz bizitzera”, esan digu amaitzeko.

MINGAINARITIRAKA



Kote Mentxaka

JAUJA DENDAKOIA

Kote mondragoearra da, baiña urte dezente daroia Bergaran bizitzen. Oin dala 11 urtetik dauka Jauja kirol dandia. 40 urte dauzka, ezkondua dago eta seme bat dauka.

Kirolandia eukindda, kirolarixa izango zara, ezta?

Bai, kirola egittia da gehixen gustatzen jatena.

Praktikatzeko kirolik gustokuena? Mendixakin zerikusixa daukan dana, batez be eskalatzia.

Eta ikusteko?

Mountainbika, eskaladia...

Euskal Herriko mendirik polittena? Mondragoearra izanda, Udalaiz.

Aizkorri be gustatzen jat...; egixa esan, hemen inguruko edozein.

Eta eskalatzeko toki bat?

Atxarte, Abadiñotik gertu.

Mendixan ibiltziaz gain, ze beste afiziño daukazu?

Bizikletan ibiltzia, korrika egittia...

Egunkarixan, zer irakurtzen dozu?

Danari emoten jat errepasso bat; titular danak irakurtzen dittut, eta interesatzen jaten albisteren bat.

Liburu bat?

Ez daukat irakurtzeko bape afiziñorik, aldizkarixak eta holakuak bakarrik.

Film bat?

Limite vertical.

Zer da bestiengan gehixen apreziatzen dozuna?

Adiskidetasuna eta zintzotasuna.

Eta zela ikusten dozu zeure burua?

Nik uste dot pertsona zintzua naizela, baiña jenixua daukat, diar asko etaratzen dot, etxian, batez be.

Amets bat?

Osasuna eukitzia eta ondo bizitzia. Loterixia tokatzia be esan leike, baiña hori be danon ametsa izango da, ez?

AINTZANE IRIZAR

NIREBIDAIAHURA / Idoia Azkarate

KENYA / 1994an

Lau bergarar eta Gasteizko lagun bat joan ginen duela zazpi urte Kenyara, antolatutako bidaia batean. Sarritan ikusten ditugu telebistan animaliei buruzko dokumentalak, baina ezin da alde-ratu animalia horiek bertatik bertara ikustearekin.

Kenyako bi zonalde ikusi genituen: Masaia Maran eta Sanburu parkeak, batetik, eta kostaldea, bestetik. Parkeetan kanpatuta egon ginen. Hasieran gogorra egin zitzaigun, oihanaren erdian geundelako, argi barik, dutxa barik, animalia artean... Gainera, gaueko isiltasunean animalien hotsak entzuten genituen, eta horrek egonezin pixka bat sortzen zigun. Eskerrak masaiak zelatan egoten ziren.

Goizeko 6:00etan jaikitzen ginen, eta animalien bila abiatzen ginen furgoneta batean. Oso zaila zen animaliak ikustea. Denbora luzez ibili ondoren, azkenean, lehoi familia batekin topo egin genuen. Denok liluratuta geratu ginen; beharbada, hura izan zen bidaiako gure lehendabiziko momentu bikaina. Harrezkero, gepardoak ere ikusi genituen, eta noski, baita elefante, jirafa, zebra, antilope edota ñuak ere; zoragarria, benetan!


Gero, kostaldera joan ginen, Mombasa, Malindi, Lamu eta Kiwaiun. Oso herri bereziak eta bitxiak ikusi ahal izan genituen. Lamu, esaterako, oso herri bitxia zen; astoz betetako herria, zamak eramateko erabiltzen zituzten-eta. Kiwaiu, berriz, irla bat zen; benetan, paradisu txiki bat zen. Gauza asko ekarri genuen Kenyatik: jendearen irribarrea, leialtasuna, erropia bitxiak koloreak, naturaren indarra, animalien askatasuna, zeruaren argitasuna, janarien zaporea, eta itsasoaren, lurraren, mendiaren eta sabanaren usaina. Zentzumen-dako poztasun bat izan zen nire bidaia hura.



“Goizean goiz jaikitzen ginen animalien bila joateko”

“Hasieran gogorra egin zitzaigun oihanaren erdian egotea”

AINTZANE IRIZAR



Ez da erraza sabanan gepardoak ikusi ahal izatea.



POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA
Tel. 943 76 15 09



DEBA GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telesforo Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

CAMACHO

Drogeria Usaindegia

Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35



Senior mailako mutilen taldeak ez zuen inolako arazorik izan Donostiako Alde Zaharra taldea mendean hartzeko.

SASKIBALOA

Senior taldeak Alde Zaharrari irabazi zion Labegaraietan (75-58)

Mahoneroak sailkapeneko aurreneko tokietan dira

EDU MENDIBIL

Bi partidu jokatu eta biak irabazi ditu senior mailako mutilen saskibaloit taldeak. Joan den egunean, Bergarak erraz irabazi zion Donostiako Alde Zaharra taldeari, 75-58. Zapatuan, bergararrak Elgoibar taldeari bisita egingo diote, 19:00etan.

Bergarak partidu ona egin zuen Alde Zaharraren aurka eta 17 puntuko aldearekin nagusitu ziren etxeok Labegaraietako kiroldegian. Bergararen aldetik honako jokalariek kantxaratu ziren: Mikel Etxeberria (16 puntu), David Urbina (23), Jesus Morais (11), Ugutz Basauri (7), Alfonso Romera (8 puntu) -hasierako boskotea-, Jorge Morais (1), Mikel Larrañaga (2), Iker Barbero (5) eta Iban Alonso (2 puntu).

David Urbinak zuzentzen duen taldeak, esan bezala, jokatutako bi partiduak irabazi ditu, Loiola eta Alde Zaharra taldeen aurka, hain zuzen ere. Lehen jardunaldian atsedena izan zuten, oraingoz ez dira lidertzan, hainbat taldek eurak baino partidu bat gehiago irabazi dutelako. Hala ere, bergararrak ondo hasi dira ligan, eta zapatuan, hilaren 10ean, hirugarren garaipena erdiesten saiatuko dira Elgoibarko kiroldegian, 19:00etan. Datorren asteburuan, berriro ere Labegaraietan jokatuko dute, Donostiako Kostkas taldearen aurka.

BKEko saskibaloit saileko beste taldeei dagokienez, gazte tal-

deak galdu egin zuen Oñatiko Zubikoa kiroldegian zapatuan, Aloña-Mendiren aurka (52-48). Jokin Pérez eta Ramon Conde ditugu gazte taldeko entrenatzaileak eta pozik dira euren jokalariek orain arte erakutsitakoaz. Lehenbiziko hiru partiduak jarraian irabazi ondoren, ligako lehen partidua galdu zuten oñatiarren aurka. Bergararrak partidua irabazteko zorian izan ziren, baina azken minutuetan Aloña-Mendikoek trebetasun hobeaz aldu zuten eta lau puntugatik nagusitu ziren. Zapatuan, Bergarak Easo-B taldearen aurka jokatuko du Donostiako Karmelo Balda kiroldegian, 18:00etan.

KADETEAK ETXEAN

Bestalde, kadeteek benetan itxura eskasa azaldu zuten Ordizian; hango taldearen aurka 89-26 gal-

du zuten. Kadeteek esperientzia handiagoko taldeen aurka jokatuko beharko dute, eta orain arte ikusitakoaren arabera, aurtengo denboraldian sufritzea tokatuko zaie.

Fernando Moretonek eta Mikel Etxeberriak entrenatzen duten taldeak etxean jokatuko du asteburuan. Zapatuan, Labegaraietako kiroldegian, bergararrak Azpeitiko Iraurgi taldearen aurka neurtuko dituzte indarrak. Partidua 12:15ean hasiko da, eta jokalariek ezinbestekoa izango dute zaleen laguntza partidua aurrera ateratzeko.

Ordizian partidu txarra egin ondoren, kadeteek ezinbestekoa dute bihar irabaztea, batez ere jokalarien adorea indartzeko. Hala ere, azpeitiarrek talde sendoa dute, eta ez da erraza izango puntuak etxean geratzea.

Seniorrek igoera helburu

Azken bi denboraldietan mailaz jaitsi eta gero, senior taldeak igoera lortzeko helburua dauka aurtan. Lehen maila autonomikoan jokatuzetik Gipuzkoako bigarren mailan jokatzerara igaro dira bergararrak. Jokalarien eta entrenatzaileen ilusioa berreskuratzea ezinbestekoa da. Lan kontuengatik Alex Familiarrek entrenatzaile postuari uko egin zion iaz, denboraldiaren amaieran, eta David Urbinak hartu du taldearen zuzendaritza aurtan. Era berean, Ugutz Basauri pibota eta Alfonso Romera eskolta taldera itzuli dira. Urbinak jokalaria altu gehiago izatea faltan igartzen du, baina itxaropentsu dago taldea mailaz igotzeko. Ligan ondo hasi dira. Ea joko onari eta emaitzei eusten dizkieten.



Lehen mailako gazte taldea sailkapenaren erdialdean dago.

Lehen mailako gazte taldeak galdu egin zuen zapatuan

E.M.

Aurreko zapatuan, Bergara KEko lehen mailako gazte taldeak 0-2 galdu zuen Ipintzan, Azpeitiko Ikasberri taldearen aurka. Mahoneroak sailkapenaren erdialdean dira orain.

Pedro Jausorok zuzentzen duen taldeak zazpi partidu jokatu ditu orain arte. Horietatik, bi irabazi, hiru berdindu eta gainerako hirurak galdu egin dituzte bergararrak. Zapatuan, Ipintzan, 0-2 galdu zuten Ikasberri taldearen aurka. Azpeitiarrek lehen zatian sartu zituzten partiduko bi golak, etxekoen defentsaren hutsak aprobetxatu ondoren. Bigarren zatian Bergarak hainbat aukera izan zituen aldea murrizteko, baina mahoneroek ez zuten zorterik izan ate aurrean. Pedro Jausoro

entrenatzailearen arabera, "helburu nagusia da mailari eustea eta, aldi berean, ohorezko gazte mailako talderako jokalariek prestatzea". Bergara sailkapeneko 10. tokian dago, eta ligan 18 talde ari dira.

TALDEAN 22 JOKALARI

Aurtengo denboraldian 22 jokalaririk ari dira lehen mailako gazte taldean. Honako hauek dira: Ander Sesma, Iñigo Ibartzabal eta Aitor Elgero atezainak; Anaitz Egaña, Jon Irazabal, Julen Pascual, Aritz Balda, Manex Altuna eta Asier Arbulu atzelariak; Karmelo Gallastegi, Jon Blázquez, Ander Santamaria, Jose Javier Carrero, Aritz Oregi, Mikel Juaristi eta Iñigo Albistegi erdilariak; eta azkenik, Xabier Rivas, Igor Lete, Aitor Marcos, Josu Barrutiabengoa, Aitor Baz eta Mikel Rollan aurrelariak.

FOTOKIROLA



Gipuzkoako karate txapelketan bikain

Gipuzkoako karate txapelketan, kumitetan, Miren Laskurain eta Aitor Jaso txapelak izan ziren (60 kg. tik beherakoan ar- tean), Ainhoa Zafra bigarrena izan zen (60 kg. tik gorakoan) eta Raquel Blancok zilarrezko domina lortu zuen katetan. /E.M.

LABEGARAIETAKO FUTBITOTXAPELKETA

EMAITZAK

A MULTZOA

Torrekua-Mongatxurak	2-5
A Ze Flaxa-Amilotx	3-0
Agirrebeña jatetxea-Bar Ganbara	7-3
Bar Ugarte-Komando Piperrak	4-2

B MULTZOA

Txipiron-Bar Bedarreta	1-12
Bar Canalejas-T.H.T.	11-1
Amoskibar-Aterpe	2-4
Artekale pizzeria-Etengabe	5-3

C MULTZOA

Ortzi-Dedo Pafarru	4-5
Pagomendi-Alum. Kresala	1-4
Timofonika Team-Errotagain	0-10
Patxaran Team-Artusamak	2-5
Bildurbarek-Bayer	3-5

SAILKAPENA

A MULTZOA

	P	J
1. A Ze Flaxa	15	5
2. Agirrebeña jatetxea	13	5
3. Mongatxurak	10	6
4. Bar Ugarte	9	5
5. Torrekua	8	6
6. Kanpazar Harrobia	6	5
7. Komando Piperrak	5	6
8. Biciprecisión Igartua	4	5
9. Amilotx	4	5
10. Eri	4	5
11. Bar Ganbara	1	5

B MULTZOA

	P	J
1. Bar Bedarreta	15	5
2. Bar Canalejas	13	6
3. Aterpe	12	5
4. Vacalouras	10	5
5. Amoskibar	9	6
6. Irubide jatetxea	8	5
7. Artekale pizzeria	6	6
8. T.H.T.	4	5
9. Txipiron	3	5
10. Etengabe	0	6

C MULTZOA

	P	J
1. Dedo Pafarru	13	6
2. Errotagain	12	4
3. Bayer	12	5
4. Artusamak	9	4
5. Pagomendi	9	6
6. Aluminios Kresala	7	6
7. Bildurbarek Opel Lam	6	6
8. Ortzi	3	4
9. Patxaran Team	3	6
10. Timofonika Team	0	5

PARTIDUAK

ZAPATUAN, BARRUAN

09:30: Kanpazar-Amilotx. Torrekua
10:30: Torrekua-Bar Ugarte. Amilotx
18:00: Etengabe-Bar Bedarreta. Errotagain
19:00: Artusamak-Errotagain. Ortzi
20:00: Ortzi-Timofonika Team. Artusamak

ZAPATUAN, KANPOAN

16:00: T.H.T.-Aterpe. Dedo Pafarru
17:00: D. Pafarru-Bildurbarek. Bar Ganbara
18:00: Bar Ganbara-Mongatxurak. Bildur.

DOMEKAN, BARRUAN

09:30: Vacalouras-Txipiron. Antolaketa
10:30: Amoskibar-Bar Canalejas. Antolak.
16:00: T.H.T.-Artekale pizzeria. K. Piperrak
17:00: K. Piperrak-Agirrebeña. Bici. Igartua
18:00: Bici. Igartua-A Ze Flaxa. Aterpe
19:00: Aterpe-Bar Irubide. Pagomendi
20:00: Pagomendi-Artusamak. Irubide jate.

DOMEKAN, KANPOAN

11:30: Eri-Kanpazar Harrobia. Antolaketa
12:30: Alum. Kresala-Ortzi. Antolaketa
16:00: Bayer-Errotagain. Patxaran Team
17:00: Timofonika-Patxaran Team. Errotag.

ARGI IBILI!

AMILOTX TALDEARI ZIGORRA

Amilotx taldeari 3-0eko emaitzarekin galdutzat eman zaio A Ze Flaxaren kontrako partidua, jokatzera ez aurkezteagatik. Horrez gain, hiru puntu galdu dituzte. Hori gutxi balitz, hurrengo baten horrelakorik errepikatzen badute, antolaketa batzordeak Amilotx taldea txapelketatik kanporatuko duela jakinarazi du.

HAINBAT JOKALARI ZIGORTUTA

Timofonika Team taldeko Ibai Romero jokalaririk partidu bateko zigorra bete beharko du, azken partiduan bi txartel hori erakutsi zizkioteko. Bestalde, Jose Angel Arriaran (Ortzi), Ibon Larrañaga (Bildurbarek) eta Javi Carrascosa (Bayer) jokalariei bi partiduko zigorra ezarri die antolaketak, hirurek txartel urdina izateagatik.

GORA ETA BEHERA

↑ AGIRREBEÑA JATETXEA ETA ERROTAGAIN

A multzoan Agirrebeña jatetxea taldea sendo ari da. Azken jardunaldian erraz irabazi zioten Bar Ganbarari (7-3). Errotaginek, berriz, jokaturako lau partidua irabazi ditu eta 2. postuan dago C multzoan.

↓ TXIPIRON, BAR BEDARRETA ETA TIMOFONIKA TEAM

B multzoko Txipiron eta T.H.T taldeek gol zaparrada galanta jaso zuten Bar Bedarreta eta Bar Canalejas taldeen aurka, hurrenez hurren. C multzoan, Timofonika Team taldeak azken postuan jarraitzen du 10-0 galdu ostean.

GAINBEGIRADA

ATLETISMOA

Bergarako 150 korrikalari inguru izango dira domekako Behobia-Donostia lasterketan

Begarako 150 korrikalari inguruk hartuko dute parte domekan, hilaren 11n, jokatu den Behobia-Donostia lasterketan. Proba goizeko 11etan hasiko da eta antolatzaileen arabera 10.000 partaide inguru izango dira Behobiako irteeran.

MENDIA

Alkizara eta Aiara mendi irteera nagusientzat datorren domekan, azaroaren 18an

Alpino Gorkak eta Pol-Pol Mendizale Taldeak Alkizara eta Aiara joateko mendi irteera antolatu dute datorren arazoaren 18rako. Irteera egun guztirako izango da eta nagusiei zuzenduta dago. Txartelak Pol-Poleko bulegoan azaroaren 15a arte, aste barruan 19:00etatik 20:30era.

GOLF

Golf hobekuntza ikastaroa izango da datorren astebukaeran Urturin, Araban

Debagoieneko Kirol Zerbitzuen eskutik, golf hobekuntza ikastaroa izango da Urturin azaroaren 17an eta 18an, 11:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 18:00etara. Izena ematea (8.000 pezeta kirol zerbitzuko bazkideek eta 10.000 gainerakoek) Udal Kirol Zerbitzuan (943 77 91 67).

FUTBOLA

Lehen erregionaleko futbol taldeak Iintxaren aurka jokatu du zapatuan Agorrosinen

Karlos Lasak zuzentzen duen lehen erregionaleko futbol taldeak Iintxaren aurka jokatu du zapatuan, hilak 10, Agorrosinen, 15:45ean. Azken jardunaldian mahoneroek berdinketa lortu zuten Sorraluzen (4-4). Bergararrak sailkapeneko 10. tokian dira, 8 punturekin.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-Iintxa Infantilak. Zapatua. 12:00. Ipintza.
Bergara-Iintxa Lehen erregionala. Zapatua. 15:45. Agorrosin.
Bergara-Mondragon Neskak. Zapatua. 17:30. Ipintza.
Bergara-Anaitasuna Ohorezko mailako gazteak. Domeka. 11:00. Ipintza.

SASKIBALOA

Bergara-Iraurgi Kadeteak. Zapatua. 12:15. Kiroldegia.

ESKUBALOA

Bergara-Donibane Kadete mutilak. Zapatua. 16:15. Kiroldegia.
Bergara-Xarpot kafetegia Gazte mutilak. Domeka. 12:15. Kiroldegia.

PILOTA

Bergara-Zurriola (kadeteak)
Bergara-Amezketak (lehen mailako seniorrak)
Domeka. 12:00. Udal Pilotalekua.

EMAITZAK

FUTBOLA

Hondarribia 0 Bergara 0 (Preferente maila)
Soraluze 4 Bergara 4 (Lehen erregionala)
Urola 1 Bergara 0 (Neskak)
Pasaia 0 Bergara 8 (Ohorezko mailako gazteak)
Bergara 0 Ibasberri 2 (Lehen mailako gazteak)
Bergara 0 Sporting Herrera 1 (Ohore. m. kadeteak)
Bergara 1 Eibartarrak 1 (2. mailako kadeteak)
Bergara 8 Euskalduna 1 (Infantilak)

ESKUBALOA

Arrasate 17 Bergara 25 (Senior mutilak)
Bergara 40 Loloia 22 (Senior mutilak)
Egia 29 Bergara 14 (Gazte mutilak)

SASKIBALOA

Bergara 75 Alde Zaharra 58 (Seniorrak)
Aloña Mendi 52 Bergara 48 (Gazteak)
Ordizia 89 Bergara 26 (Kadeteak)

JOKOZKANPO

Jokin Etxaniz

PILOTARIA

Lau t'erdiko txapelketaren barruan, Jokinek Iban Otaegiren aurka jokatu du datorren egubakoitzean, hilak 16, Zegaman.

Rai eta Mikel Goñi kanporatu ondoren, badirudi sasoi betean dagoela Otaegi azpeitiarra.

Bai. Goñiren aurka oso partidua ondu zuten: ondo defenditu zuten bere burua eta, horrez gain, bikain bukatu zituen tantoak. Ez dut sekula beraren kontra jokatu eta partidu zaila izango da. Gainera, moral handiarekin egongo da, Rairi eta Goñiri irabazi ondoren. **Zer moduz eskuak?**

Ez nabil ondo, eta aste honekin ezin izan naiz nahi bezala entrenatu. Hala ere, egubakoitzeko partidura ondo iristea espero dut. Ahal den ondoan gertatuta joatea eta Otaegiri gauzak zailak jartzeari da nire asmoa.

Otaegiri irabaztekotan, ziurrenik Eugi izango duzu zain.

Otaegiri irabaziz gero pozik egongo nintzateke. Badakit Eugiri irabaztea oso zaila izango litzatekeela, bera delako txapelketa eskuratzeko faboritoetako bat. Hala ere, jokatzeko ditudan partiduetan daukadan guttia ematea da nire lehenbiziko helburua. Ea gauzak ondo ateratzen zaizkidan.



OGIZUN

koop. elk.
okindegia



San Pedro 21
BERGARA
943 76 20 49

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

ETXAGI JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8
BERGARA
943 76 53 12

FESTA KUBATARRA

•Konbinatu
kubatarrak

•Kubako
dantzarien
ikuskitzuna



Azaroaren
17an,
zapatua,
23:00etan



ARALAR TABERNA
Matxiategi 3, Bergara



Argazkian M. Eugenia Silguero biolontxelo jotzailea.

Zapatuan biolontxelo eta piano kontzertuak eta domekan piano emanaldia egongo dira

Biolontxelo eta piano saioak Udaleko bilkuren aretoan

MONIKA BELASTEGI

Zapatuan, M. Eugenia Silguero biolontxelo jotzaileak eta Sergio Martinez piano jotzaileak osatutako bikoteak eskainiko du emanaldia. Domekan, berriz, Arkaitz Mendoza pianistak. Biak Udaleko osoko bilkuren aretoan izango dira, 19:30ean, eta doan.

Udaleko osoko bilkuren aretoa musikarako areto bihurtuko da asteburuan. Zapatuan eta domekan kontzertu bana eskainiko dituzte hantxe. Lehenengoa, M. Eugenia Silguero biolontxelo jotzaileak eta Sergio Martinez pianistak osatutako bikoteak eskainiko dute. Bigarrena, bakar-kara oraingoan, Arkaitz Mendoza piano jotzaileak.

BIOLONTXELOA ETA PIANO

Mtsilav Rostropovich biolontxelo jotzaile ospetsuak M. Eugenia Silguero jotzen ikusi zuenean, horrek zapzi urte zeuzkan. Rostropovichek izugarriko talentua antzeman zion Silguerori, eta ez zuen zalantza izpirik izan biolontxelo jotzaile handia izango zela. Gaur egun, Europako balore gazteen artean, etorkizun oparoa dutenatariko bat dugu.

Silgueroren ibilbidea izugarria da: hamairu urterekin Goi Mailako ikasketak bukatu zituen Donostiako Goi Mailako Musika-Kontserbatorioan, Ohorezko matrikula eta Ikasketak Bukaerako Ohorezko Saria lortu zituela (2001). Hain gazte

izanda ere, hainbat sari jaso ditu, eta baita emanaldiak eta grabazioak egin ere.

Silguerorekin batera, Sergio Martinez pianistak jardungo du zapatuko saioan. Irunen jaioa, han hasi zituen musika eta piano ikasketak. Françoise D'Anjou eta Françoise Douë irakasleekin egin ditu piano ikasketak, eta kalifikazio gorenak jaso.

DOMEKAN, PIANO EMANALDIA

Arkaitz Mendozak eskainiko du domekan piano kontzertua. Donostiako Udal Eskolan hasi

zituen piano ikasketak, Laurentino Gomezen zuzendaritzapean, eta Goi Mailako kontserbatorioan jarraitu zituen Cristina Navajasekin. 1995etik hona, organo ikasketak egiten ari da Baionako Kontserbatorio Nazionalan, Bernardette Carrauren eskutik.

Hainbat sari jaso ditu, besteak beste, Donostia Hiria, Pariseko Lucien Wurmser eta Soriako Gerardo Diego. Bakarlarri gisa hainbat piano kontzertu eskaini ditu, eta baita organo kontzertuak ere. Azarotik Aieteko parrokiako organista titularra da.

Hiru musikari, bi emanaldi

AZAROAK 10, BIOLONTXELO ETA PIANO SAIOA

- D. Popper: *Kontzertuko polonesa*
- G. Cassadó: *Requiebros*
- G. Fauré: *Amets baten ostean*
- D. Popeer: *Elfoen dantza*
- M. Ravel: *Habanera tankerako pieza*
- G. Cassadó: *Danza del diablo verde*

- D. Popper: *Tarantella*
- D. Van Goens: *Scherzo*
- C. Saint Saëns: *Zisnea*
- E. Granados: *Danzas Españolas (Andaluzia)*
- J. Massenet: *Meditazioa (Thais operakoa)*
- D. Popper: *Hungariako rapsodia*

AZAROAK 11, PIANO SAIOA

- J. S. Bach: *Preludio eta Fuga BWV 884 / Preludio eta Fuga BWV 857*
- F. Chopin: *Nokturnoa, op. 48 2. zk.a / Fantasia - impromptu op. 66*
- I. Albéniz: *Albaicín (Iberia suitekoa)*
- F. Liszt: *Vallée d'Obermann*

LABUR

Kirol materialak euskaraz sortzeko XII. beka eman dute euskara eta kirol zerbitzuek

Deba bailarako euskara eta kirol zerbitzuek erabaki dute nori eman 2001 urteko beka. 500.000 pezetako lau beka eskaini dira aurren; natura ekintzak, oinarritzko soin hezkuntza, xakea eta jarduera fisikoko eta kiroleko oinarritzko hizkuntza.


Hauek jaso dute beka: natura ekintzak, Damaso Gallastegi bergararrak Mailenka lanagatik; oinarritzko soin hezkuntza, Alazne Mutiloa hernaniarrak Auskalo lanagatik; xakea, Xabier Sarasua atxabaltarrak Txolarre lanagatik, eta jarduera fisikoko eta kiroleko oinarritzko hizkuntza, Luis Mari Zulaika zarauztarrak.

Orfeoiko zuzendari David Azurzaren 'Horra Mari' ipuin musikala aurkeztu dute Tolosan

David Azurza Bergarako Orfeoiko zuzendariaren *Horra Mari* obra estreinatu berri dute Tolosan. Umeen koroa, kontalaria eta orkestrarako ipuin musikala da, eta testua Jose Mari Iturralde idazleak egin du.

David Azurzaren obra *Horra Mari Domingi* Gabon kanta ezagunean du oinarria. Hala ere, duen egituragatik, obra osatzen duten kantak edozein urtarotan abesteko modukoak dira, sinesgarritasuna galdu gabe. Bestalde, umeen koro guztiei egokitu dakiekeen lana da.

Azurzak bi bertsio egin ditu, bata euskaraz eta bestea gazte-leraz, eta azken horrek Azurzaren *Horra Mari* Espainia eta Hego Amerikako hainbat tokitan estreinatzeko aukera emango dio. Hain zuzen, ziurtatuta daude hainbat emanaldi, Kuban, Argentinan, Santanderren eta Valentzian, beste batzuren artean.



Legazpiko Jesus Alonso Arrainzen Piragua lanak jaso du zuri-beltzeko lehen saria.

Bergarakorik ez kirol argazki lehiaketako lehenen artean

Jakitera eman dituzte Udaleko Kirol zerbitzuak eta Pol-Pol argazki taldeak antolatutako XI. Kirol argazki lehiaketako irabazleen izenak. Zuri-beltzean hogeita hamar lan lehiatu dira, eta koloretan, berriz, berrogeita sei. Bestalde, Argazkiola lehiaketarako sailkatzeko baliagarria ere izan da, eta Aretxabaleta, Arrasate, Oñati eta Bergarako Udal kirol teknikariek osatu dute epaimahaia.

Koloretako argazkiei dago-kienez, Adolfo Vazquez erreteriarren *Piraguiста* lanak jaso du lehen saria. Bigarrena Juan Jose Gurrutxaga donostiarraren *Volando alto* argazkiak, eta hirugarrena, Donostiako Juan Jose Camachoren *Cesta punta IV* lanarendako izan da. Horrez gain, Bergarako onenaren saria Benito Canterok eraman du *Aizkola-*

ri lanagatik.

Zuri-beltzeko argazkien kasuan, lehen saria Jesus Alonso Arranz legazpiarrak eraman du *Piragua* lanagatik. Adolfo Vazquez erreteriarren koloretako lehenengo sariaz gain, zuri-beltzean bigarrena jaso du *Samaritano* lanarekin. Hirugarren saria Javier P. Fernandez berangoztarraren *El vuelo de Jose Felix* lanak jaso du. Azkenik, herriko onenaren saria Benito Canterok jaso du *Aitz zorrotz* lanagatik.

ARGAZKIAK KULTURA ETXEAN IKUSGAI

Lehiaketan parte hartu duten 40 lan ikusgai daude Kultura Etxean azaroaren 18ra arte. Ordutegia honakoa da: astelehenetik egubakoitzera, 18:00etatik 21:00etara, eta larunbat eta jai egunetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

E, TXO!

GAZTETXEEN ALDEKO AGERRALDIA BILBON

Zapatuan, azaroak 10, gaztetxeen aldeko manifestazio nazionala egingo dute Bilbon. Arratsaldeko 17:30ean izango da manifestazioa *Stop kriminalizazioari*. *Gazteteak defendituko ditugu* lelopean. Autobusa egongo da Bergaratik; autobuserako txartelak Pol-Pol eta Arrano tabernetan daude salgai.

KUADRILATEGIREN HITZORDUA ZAPATURAKO

Bihar, zapatua, beste hitzordu bat daukazue Kuadrillategi egitasmoa kideok. Arratsaldeko 15:30erako jarri dute hitzordua, eta graffiti tailerra izango duzue Zabalotegin, Udal Euskaltegian. Hortaz, badakizue, zuen artista sena pizteko aukera paregabea duzue Kuadrillategiren eta Jardunen eskutik. Ez ahaztu, bihar, zapatua, 15:30ean.

LIF ETA KLOROFILA KARTZELA ZAHARREAN

Bi talde airtuko dira gaur, egubakoitza, gaueko 22:30ean, Kartzela Zaharrean, Gazteteak antolatuta. Hondarribiko LIF eta Oñatiko Klorofila taldeek eskainiko dute kontzertu hori.

GAZTE ASANBLADA LIBURUTEGIA OSATZEN

Gazte Asanbladak liburutegi bat osatu nahi du gazteteen. Liburutegi xume, txiki eta herrikoia, euren esanetan. Horretarako, herriko gazte guztiei dei egiten die etxean hautsez josita dauden liburu horiek hara bertara eramateko. Izan ere, batek ezertarako erabiltzen ez duen liburuak mesede handia egin diezaioke beste bati gazteteen. Behin liburuak batuta, denak sailkatuko dituzte Gazte Asanbladakoek.

GUREGAIK/ 'ASTINDU' FANZINE BERRIA

Gazteteak hileroko astinduko dituzte gazteei buruzko berriak

AINTZANE IRIZAR

Urriaren 26an kaleratu zuten Bergarako gaztete fanzinearen lehen alea. Bigarren alea, berriz, azaroaren 30ean irakurri ahal izango dugu. Bien bitartean, baina, ale berezi bat argitaratu dute.


Udalaren dekretua eta horrek ekarri dituen ondorioak izan dira ale berezi hori argitaratzeko arrazoia. Herriko hainbat tabernatan banatu zituzten aldizkariok, eta arrakasta izan dutela, behintzat, baieztatu dezakegu, kosta zaitzuten eta *Astindu* berezi honen ale bat topatzea. Hilabetekaria izango da *Astindu*. Ale berezi horretan gaztetearen historia laburbildu dute. Udalaren jarrera sala-

Hilabetekaria izango da Astindu, eta azaroaren 30ean kaleratuko dute bigarren alea

tu eta azken gertakariak komunikabideetan izan duten oihartzunaren errepaso ere egin dute.

HERRIKO GAZTEEN ALDIZKARIA

Gaztete fanzine hau irekita dago herriko gazteen iritziak, kolaborazioak eta bestelako informazioak jasotzeko. Bi bide dau-



IÑAKI ITURBE

Joan den astean kaleratutako *Astindu* bereziaren azala.

de harremanetan jartzeko: alde batetik, Bergarako 174 posta kutxatilara bidal ditzakezue zuen

ohar edo iritziak; bestetik, baita *astindu@euskalerrria.org* helbide elektronikora ere.

LOTSABARIK/ Silvia Jiménez

"Txikitan, astronauta izan nahi nuen"

AINTZANE IRIZAR

Silvia Jiménezek 18 urte dauka, "baina oraindik institutuan nabil, iaz ez nuen-eta ezertxo ere egin", diosku. Aurten gogor dihardu ikasten, baita lanean ere, asteburuetan Kortazarrenian.

Txikitan, zer izan nahi zenuen?

Astronauta; beti gustatu izan zait ilargia. Baina orain badakit hori ezinezkoa dela.

Hemendik 20 urtera zelan ikusten duzu zure burua?

Espero dut ezkondu egotea eta ume asko izatea, asko gustatzen zaizkit umeak.

Gurasoek zer errepikatzen dizute behin eta berriz?

Ikasteko, ikasteko eta ikasteko.

Gurasoen kontrolpetik ihes egiteko taktika bat.

Orain ez dut horrelako taktikarik erabiltzen, ez daukat-eta beharrik. Lehen, noizean behin, gezur txikiren bat esaten nien.

Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Lagunei, osasunari eta ikasketei.

Zure bertute bat?

Oso alaia naizela.

Eta hutsune bat?

Oso jeloskorra naizela.

Zure gorputzeko atalik gustukoena?

Begiak, begi handiak daukat.

Jendeari, zeri botatzen diozu begia lehenengo?

Batez ere, aurpegiari begiratzin diot orokorrean, baina baita ileari ere.

Zer egiten duzu seduzitzeko?

Jatorra izan; ni naizen modukoa azaltzen naiz besteen aurrean; horrek batzuetan funtzionatu egiten du, eta beste batzuetan, berriz, ez.

Fantasia sexual bat. Zeinekin eta non?

Bruce Dickinson Iron Maiden taldeko abeslariarekin egotea gustatuko litzaidake, baina gogo hori ez dut uste fantasia sexuala denik.



ADINA: 18 urte • **IKASKETAK:** Batxilergoa • **ZALETASUNAK:** Musika eta motoak • **LIBURU BAT:** 'Corazones en la atlántida', Stephen King-ena • **FILM BAT:** 'A todo gas' • **MUSIKA TALDEA:** Iron Maiden • **KIROI TALDEA:** Reala

Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz

Ziklomotorreko lizentzia astebetean. AZTERKETARIK GABE!

Izena ematean, %10eko deskontua Gazte Txartelarekin

Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin!



A U T O E S K O L A

Telefonoa: 943 76 16 63. BERGARA

OILAGORRA
TABERNA

Barrenkalea 21 BERGARA

ZAHARRENETXETIK



Raquel Barcenilla psikologoaren eskutik, memoria entrenatzeko ariketak egingo dituzte ikastaroan.

Memoria lantzeko tailerra antolatu dute San Joxepe elkarteak

EDU MENDIBIL

Azaroaren 22tik urtarriaren 24ra bitartean memoria tailerra izango da San Joxepe elkarteak, martitzen eta eguenean, 16:00etatik 17:30era. Ikastaroa 65 urtetik gorakoei zuzenduta dago, eta bertan memoria lantzeko ariketak landuko dituzte.

Hirugarren Adineko Komunitate Institutuak, ICTE delakoa, emango du ikastaroa, eta Raquel Barcenilla psikologoa izango da irakaslea. Barcenillak (26 urte) bi urte daramatza ICTE lanean eta badu esperientzia horrelako ikastaroak antolatzen. Bere hitzetan, "memoria entrenatzeko ariketak egingo ditugu ikastaroan, egunero izaten ditugun ahateak saihestarren. Giltzak non utzi ditugun, lagun baten telefono zenbakia eta horrelakoa sarritan ahazten ditugu. Arazo nagusia ez da oroimena izaten, baizik eta adinarekin arreta galduz doala".

Barcenillaren arabera, "adinean aurrera goazela, hainbat estimuluekiko arreta galtzen dugu, lehenago nekatzen garela. Eta hortik etortzen dira ahazte txikiak, oso gogaikarriak egiten zaizkigunak. Memoria lantzeko ariketen bitartez, horiek zelan saihestu aztertuko dugu".

Memoria hobetzea helburu

Pertsona nagusiek memoria arazoak Alzheimer gaixotasunarekin lotzen dituzte askotan. Ahazte txikien aurrean larritzeko motiborik ez dagoela dio Raquel Barcenillak: "adin batetik aurrera oso ohikoak dira, eta jendea arrazoi barik larritzen da askotan. Oroimena entrenatu egin daiteke, eta memoria hobetzea da ikastaroaren helburua".

65 URTETIK GORAKOEI ZUZENDUTA

Ikastaroak lau zati izango ditu: lehenbiziko zatian ikus-arreta eta entzumenezkoa landuko dute, bigarren zatian hizkuntzarekin zerikusia duten ariketak (sinonimoak, antonimoak edo gurutzegramak) egingo dituzte, oroi-estrategiak (ideiak lotzea esate baterako) ere aztertuko dituzte, eta, azkenik, eguneroko ahazteak aztertuko dituzte, aurretik ikasitako guztia praktikan jartzeko. Raquel Barcenillak esaten duenez, "ideiak lotzea oso baliagarria da gauzak ez ahazteko. Adibidez, halako izen bat izen bera duen beste pertsona batekin lotzea ondo etortzen da. Hitzekin eta zenbakiekin loturak nahiko modu errazean egin daitezke".

Ikastaroa, esan bezala, 65 urtetik gorakoei zuzenduta dago. Izena ematea azaroaren 15era arte izango da zabalik San Joxepe elkarteak, 11:30etik 13:00etara eta 18:00etatik 19:00etara. Ikastaroa urtarriaren 24ra bitarteko martitzen eta eguenean emango da.

LABUR

Mizpirualde Egoitzaren astea ospatuko dute azaroaren 12tik 17ra bitartean

Hainbat ospakizun izango dira Mizpirualden datorren astean: astelehenean, 16:30ean, gaztaina jana eta Musika Eskolako Soka taldearen saioa; martitzenean txapelketak 17:00etan; eguaztenean Moises Azpiazu dantza taldea 17:30ean; eguenean euroaren gaineko hitzaldia 17:00etan eta jarraian Musika Eskolako txistulariak, eta egubakoitzean bingoa, zozketa eta trikitilariak 17:00etan hasita.

San Joxepe elkarteak sarrerak automatikoki jarri dute

San Joxepe elkarteak sarrerak automatikoki jarri zuten joan zen astean. San Joxepeko zuzendaritzak duela hilabete batzuk egin zuen aipatutako ate automatikoki jartzeko eskaera, batez ere gurdun aulkietan ibiltzen direnei lokalerako sarrera erraztearren. Ate automatikoki martxan da jadanik San Joxepeko sarrerak.

Hobetzen aldizkariaren azken alearen kaleratzea atzeratu egin da

San Joxepe erretiratuen elkarteak kaleratzen duen *Hobetzen* aldizkaria ez da urrian kaleratu. Orain arte San Joxepekoek hiru zenbaki kaleratu dituzte, eta azken hiruhilabetekoari dagokiona atzeratu egin da oraingoz. Amaitu berri den Kultur Hamabostaldia rekin guztiz lanpetuta izan direnez, zaila izango da urtea amaitu baino lehen aldizkariaren laugarren zenbakia kaleratzea.

ZAHARRENAHOTIK

Cayetano Irasuegi

MIZPIRUALDEKO BIZILAGUNA

Basalgoko Lonbide baserrikoa, hiru urte eta erdi daramatza Mizpirualden. Ohiturari jarraituz, berak prestatuko ditu gaztaina erreak asteleheneko jaietan.

Noiztik daukazu gaztainak erretzeko danbolina?

Orain dela 10 bat urte egin nuen, Basalgoko elizako obrak egin zirenean hain justu. Lagunartean eta beti jan izan ditugu, eta erresidentziakoei gaztainak erretzeko prest nengola esan nien hona etorri nintzenean. Nire eskaintza gustura hartu zuten, eta ospakizunetan nik izaten dut gaztainak prestatzeko ardura.

Zenbat gaztaina kilo erreko dituzu astelehenean?

70 kilo. Erositako gaztainak dira. Sekretu bakarra buelta sarritan ematea da, gaztaina



berdin samar egoteko. Sikuegi edo umelegi badaude, *malo*. Erresidentzian egon arren, zure erritmora ei zabilta.

Kotxea daukat eta kanpora irtetea gustatzen zait. Askatasun osoa dut eta berandu iritsi behar baldin banaiz, saketako telefonotik deitzen diet aurretik. Oso pozik nago.

ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

KONDE PANADEROKUA

Burdiñate, 1. BERGARA
943 76 02 57

MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEBEZIBAR

“Ipuzcua” (Gipuzkoa) berba 1025ean ageri da lehen aldiz idazkietan.
Zein urtetan ageri da Vergara hitzaren aipamena, 1050, 1150 ala 1250. urtean?

GALDEDEBALDE

- | | | |
|---|--|---|
| <p>1.
David Azurza Bergarako Orfeoiaren zuzendaria-riaren obra bat estreinatu dute Tolosan. Zein?</p> <p>A/ Gabonen atarian.
B/ Amets baten ostean.
C/ Horra Mari.</p> | <p>2.
Zein da Totoni Rodriguez bergararrak Estatu Batuetan, Newarken, duen jatetxearen izena?</p> <p>A/ Quixote.
B/ Zakilixut.
C/ Totoni's.</p> | <p>3.
Zeinen aurka jokatu du Jokin Etxanizek lau t'rdiaren barruan datorren astean?</p> <p>A/ Mikel Goñi.
B/ Rai.
C/ Otaegi.</p> |
|---|--|---|

BERGARAKO ZUHAITZAK

Artea

Quercus ilex

MAITANE ARIZABALETA

Adaburu zabala eta azal iluna eta zartatua dituen zuhaitz hostoi-raunkorra. Udaberrian loratzen da, eta ezkurak urria eta azaroa bitartean heltzen dira.

Jatorri mediterraneanrekoa izanik, lehorte, lurzoru eta klima gogorak jasateko moldatuta dago. Udalatx mendian egutera harritsu eta idorretan dauden zuhaitzak arteak dira. Gaur egun, arteak lehen baino eremu murriztagoa okupatzen du. Gutxituz joan den espeziea da, hainbat arrazoiengatik: alde batetik, oso poliki hazten denez, egur produktiorako ez da oso baloratua izan eta haziera bizkorragoa duten pinuengatik ordezkatua izan da; eta bestetik, zuhaitz honen ikatza estimazio handikoa da. Bergaran, Angiozar inguruan ikus dezakegu gelditzen den artadi bakarrenetakoa.

Ezkurak elikagai onak dira, abereendako, batez ere. Azala larrua ontzeko erabiltzen da eta egurrak egur-ikatz bikaina ematen du.

Zuhaitz apaingarri gisa ere kultibatzen da. Bergaran, Irizar Jauregi eta Usondo eta Errotalde parkeetan ikus ditzakegu.

“Jatorri mediterraneanrekoa izanik, klima gogorak jasan ahal ditu”



EDU MENDIBIL



AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

IÑAKI MUJIKarendako izan da 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Iñakiri!

Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: **Albitxu** / Galde debalde: **1-A, 2-B, 3-C.**



Super BMk emandako **5.000 pezetako erosketa-bonoa** zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Koipesol olio

0,2 gradukoa, litro bateko botila.

0,93 €

155 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



MUJIK FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8. 943 76 28 67. BERGARA

IKUSBI

ALKANDORAK,
JERTSEAK, BAKEROAK
ETA OSAGARRIAK

Irala 5
BERGARA
943 76 53 09

**BEHEKO
TABERNA**

Menestra
eta untxia dira
gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tf.: 943 76 55 74

Usoa Pub



943 76 38 57
Irala 1. Bergara



BERGARA
Maika Jaso
10ean 13 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Asier Arriola
13an 8 urte.
Urte askotarako!
Inazio eta etxekoak.



BERGARA
Maitane Mujika
13an 7 urte.
Urte askotarako!
Jone eta familiakoak.



BERGARA
Elvira Lopez
15ean urtebetetzea.
Urte askotarako!
Etxekoak eta bizilagunak.



BERGARA
Idoia Erran
12an 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Erik Erran
13an urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Amaia Galarrga
12an 6 urte.
Urte askotarako!
Borja, Maria eta gurasoak..



BERGARA
Mikel Najera
10ean 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Andoni.

BABESLEA

kiñu

argazkilariak

Barrenkalea 35
Tel. eta faxa:
943 76 58 05

Adi!

Hurrengo zenbakian, **azaroaren 9tik 15era** bitartekoen zorion agurrak argitaratuko ditugu. **Argazkiak, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.**

Zorionak, antzuolarrok!

Antzuolan zuen zorion agurretako argazkiak* eta datuak emateko liburutegira jo dezakezue: zapaturo, 09:00etatik 13:30era. **Doan da!**

Zorionak, elgetarrok!

Elgetan zuen zorion agurretako argazkiak* eta datuak emateko Erosle-Baltxungora jo dezakezue: zapaturo, 09:00etatik 13:00etara. **Doan da!**



Goi mailako Lanbide Heziketako Batxilergo Institutua
Miguel ALTUNA



*EUSKO JAURLARITZAKO JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE GAIETAKO SAILAK
DIRUZ LAGUNDURIK ETA EUROPAKO FONDO SOZIALAK ERE FINANTZATURIK*

TXIRBIL HARROKETA BIDEZKO MEKANIZATU IKASTAROA

IRAUPENA: 695 ordu.

NORENTZAT: Langabezian dauden gizon-emakumeentzat.

EGITARAUUA:

1. Teoria (100 ordu): Kalitatea, planoen irakurketa, mekanika-teknologia eta metrologia.
2. Praktikak (395 ordu): ohiko tornu eta fresagailua, zilindro eta laun errektifikagailua, elektroerosioa, CNCrako hastapenak.
3. Lantegiko praktikak (200 ordu).

EUROPAKO FONDO SOZIALAK ERE FINANTZATUA



DIRULAGUNTZA:



JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES

Matrikula zabalik 2001eko azaroaren 5etik aurrera. Ikastaroaren hasiera azaroaren 26an. Informazio gehiago idazkaritzan: 943 76 24 91 eta 943 76 38 40.

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2001eko azaroaren 9a / 89. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea, 33 2570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com

Sikatea dela eta, ur kontsumoa zaintzeko eskaera egin die Udalak herritarrei

AINTZANE IRIZAR

Azkenaldian oso euri gutxi egin du. Antzuolako etxeetan eta hainbat enpresatan herriko iturburuetatik hartzen dute ura, eta lehortea dela eta, ur kontsumoa zaintzeko eskatu die Udalak herritarrei, duela bi aste atari guztietan jarritako bandoaren bitartez.

Herriko iturburuetara sartzen den ura zaindu beharra dago, azkenaldian oso euri gutxi egin du-eta. Sartzen dena baino gehiago kontsumituz gero, ur arazo larriak sortuko lirarteke. Aitzan dagoen ur depositoa kopuru justu samarra dago.

Badira bi aste, atarrietan jarritako ohar baten bitartez, Udalak herritarrei euren ur kontsumoa zaintzeko deialdia egin zuela. Mireia Unamuno alkatearen esanetan, "dagoeneko igarri dugu jendea ura zaintzen hasi dela, gutxiago gastatuz". Enpresen jarrera ere oso positiboa izan egi da ur kontsumoari dagokionez. "Jendeak egindako esfortzu hori eskertzekoa da; ikusi ahal izan dugu jendea kontzientziatuta dagoela", azaldu digu Mireiak.



ARTXIBOA

Datorren urtetik aurrera, herriko iturburuetatik jaso beharrean, Urkulutik jasoko dugu ura, bailarako beste herrietan bezalaxe.

URKULUKO URAREN ZAIN

Datorren urterako Antzuolan Urkuluko ura izatea espero dute Udaleko arduradunek. Debagoieneko gainerako herrietan

Aretxabaletako urtegi honetatik jasotzen dute ura. Antzuola da, oraingoz, ura herriko iturburuetatik jasotzen duen bakarra.

Udalak Iturburu horiek apro-

betxatzen jarraitzeko asmoa duen arren, laster jasoko dugu herriko Urkuluko ura. Abian da dagoeneko hori gauzatzeko prozesua.

Udal arduradunek dagoeneko igarri dute jendea ur kontsumoa zaintzen hasi dela

Horretarako badago proiektu bat aspalditik; Gipuzkoako Foru Aldundia proiektu hori moldatzen ari da orain. Izan ere, hasierako proiektua nahikoa zaharkitua zegoen dagoeneko, eta hainbat alegazio aurkeztu ziren, tartean, Udalaren alegazioak ere.

Gauzak horrela, datorren urterako lanak bukätuta egotea espero dute, eta Antzuolako etxe guztietan Urkuluko ura jasotzeko moduan egotea.

Orain jasaten ari garen sikate honi lotuta, kontuan hartu behar dugu, Urkulu dela ur maila altuena daukan Gipuzkoako ur biltegia, bere gaitasunaren %70 inguruan dago-eta. Horrek esan nahi du, Debagoieneko gainerako herrietan ez dutela ur arazorik.

HERRITARRENHITZA / Alaitz Jauregi • Gizarte laguntzailea

Bizitza ze da, negozio bat?

Zergaitik esaten doten hori? Ointxe esplikauko dotsuet: beti esan izen da **jaioberria** beso azpitan ogi bat **dabela** etortzen dala mundura; ba gaur egunian norberak bete biharreko txeke batekin etortzen dala esango neuke nik. Bateko *Dodotis*-ak diala, besteko pomadak erosi biharra, gaurko erropak bihar txiki gelditzen diala..., bukaera bareko kataia hasten da.

Konturatu baiño lehen bataiatzeko ordua ailegatzen da. Norberak umia hippie jantzizax bataiatzia nahi, eta kristalak garbitzeko be balio ez daben izara zuri batekin jantzi

bihar! Eta okerrena ez da hori, buruan traba besteik egitten ez daben lazo haundi bat jarri, gainera! Ume koittaua!

Bederatzi urte geruau, jaunartzia. Orduan be, ezin ba soineko normal bat jantzi! Zenbat eta soineko garestixaua eruan, orduan eta elegantiaua itxuria danez. Neskatilliak edo mutikuak erregalo bezela bizikletia nahi, ta gurasuek EuroDisneyrako bijajia errega-



"Norberak bete biharreko txeke batekin etortzen dira jaioberrixak"

Zenbat burukomin! Zenbat gau lorik egitteke! Zenbat hasarre! Bittartian inbitauak buruari

lau bihar bere lagunei Disneylanderakua erragalau jaelako. Hau da markia, hau!

Ezkontzia? Buenooo... Pixka-pixkat exagerau ezkeru esango neuke jaunartzia egin eta laister komeni dala ezkontzeko txandia hartzia, bai elizan, bai jatetxian, bai pelukerixan...

bueltaka: "zer jantziko dot? Eta bateren batek nere jantzi berdiña eruaten badau? Giro ona egingo dau? Eta txarra egitten badau? Zenbat diru emoten da? Gu ezingo gara gutxiuau izan! Hori bai, zenbat eta diru gehixau batu, orduan eta biaje hobia egingo dabe ezkonduak. Zorretan geratu ezkeru, inposiblia dala eta berriz hasi bihar kontuak etaratzen.

Okerrena da danok jausten garela tranpan. Hala ta guztiz be, ez dozue pentsatzen hobe izango litzakela naturalidade pixkatekin jokatu baginu guztiok?

LABUR

Lan eta zerbitzuen arduradun bat kontratatuko dute

Obra eta zerbitzuen arduradun bat kontratatu nahi du Antzuolako Udalak. Horretarako deialdia egin berri dute, urriaren bukaeran.

Hainbat zeregin izango ditu; hala nola, herrian egiten diren lanak kontrolatzea, azpiegituren egoera zaintzea edota obra txikiak egitea.

Datorren azaroaren 19ra arte dago eskaerak aurkezteko epea. Lanpostu horretara aurkezteko interesa dutenek udaletxean dute baldintzen eskuorria.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA/LARRIALDIAK

DYA 943 78 71 57
 Gurutze Gorria 943 76 55 76
 Medikua 943 76 62 23
 Praktikankea 943 76 63 80
 Udaltzaingoa 943 76 62 46
 Ertzaintza 943 76 53 40

UDALA

Udaletxea 943 76 62 46
 Kultura 943 76 64 80
 Liburutegia 943 76 60 65

BESTELAKOAK

Idolaz 943 78 60 12
 Herri ikastetxea 943 76 62 68
 Jubilatuen elkartea 943 76 62 71
 Abadetxea 943 76 64 16
 Anelkar (Kontxi) 943 78 70 65
 Taxiak: Antonio Fernández 669 15 65 40
 Jesus M. Fernández 607 31 85 60

MEZAK

ANTZUOLAKO PARROKIA

Lanegun eta zapaletan: 19:30
 Domeka eta jaiegunetan: 09:00, 11:30

UZARRAGAKO PARROKIA

Domeka eta jaiegunetan: 10:00

OHARRAK

ALAITZ JAUREGI ZENTSUA OSATZEN

Duela bi aste hasi ziren herri guztietan biztanleen errolda berritzen.

Antzuolan Alaitz Jauregi ari da errolda berria

osatzeko datuak batzen.

Hasi da dagoeneko etxez etxe datu horiek jasotzen.

Errolda horri esker,

hainbat datu jakin ahal

izango ditugu: zenbat garen,

bakoitzaren egoera zibila,

lan egoera eta abar.

BARAZARRERA IRTEERA

Azaroaren 18an izango da Arrolaren hurrengo irteera.

Arrasateko Santa Agedan irten, eta Urkiolatik pasatu ondoren, Barazarrean

joango dira mendirik mendi; bost bat orduko ibilaldia izango da.

Ondoren, bazkaria izango dute Bertoko garagardotegian.

Martitzenean, azaroak 13, eman beharko dute izena interesatuek, 19:00etatik 20:00etara, eta 4.000 pezeta ordaindu beharko dira.

ARROLAREN IRTEERA / Gatzagatik Elgeara



HAIZE ERROTAK BERTATIK BERTARA

Joan zen domekan, azaroak 4, egin genuen Arrolakook azken irteera. Gatzagatik Elgeako haize errotak dauden tokiraino joan ginen. Goizeko 8:30ean herriko plaza-tik autobusez irten, eta Gatzagara joan ginen. Dorletako Ama Birjina dagoen tokitik abiatu ginen mendi aldera, eta bi ordu behar izan genituen Elgeako haize errotetaraino iristeko. Hantxe hamarretakoa egin genuen, eta ordubetez atsedean hartzen egon ondoren, behera abiatu ginen berriro. Eguraldiak ere lagundu zigun, giro zoragarria egin zigun-eta domekan. 43 lagun joan ginen guztira mendi irteera horretara, horietatik 28, umeak. /GORKA GARITANO

BOTEPRONTOAN / Jesus Etxeberria · Udaltzaina

“Etxian 150 bat bideo zinta edukiko dittut; laster hasi biharko naiz ze daukaten ikusi eta ordenatzen”

Jesus Etxeberria da Antzuolako udaltzaina. Bera da herriko udaltzain bakarra, baina oraingo, behintzat, ondo konpontzen ei da bera bakarrik. Gero, ikusi egin behar.

Noiztik udaltzain?

1979ko iraillian hasi nitzan. Ordura arte Eladio Sánchez zan alguazilla; harek kartero lanak be egitten zittuan.

Noizko beste udaltzain bat?

Oingoz defenditzen gara.

Sekretarixa bat bai, hori gustora hartuko nuke.

Isun asko jartzen dittuzu?

Ez; berba egiñaz arazuak konpontzen saiatzen naiz, hemen danok ezagutzen gara. Multia kasu graben batian, bestela ez.

Ze arazo dago Antzuolan udaltzainaren ikuspuntutik?

Trafikua; izan be, gero eta kotxe gehixago dago eta kale estuetan batez be, peligrua sortzen da.

Zure lanian, zer gustatzen jatzu gehixen?


Ez dala bape monotonua, lan klase asko egitten dot: udaltxian konserje, kaliaz, brigadakuei laguntzen be ibiltzen naiz...

Eta gutxien?

Notifikaziño eta faktura batzuk entregatzia ez da oso lan ona izaten, jendiak ez dost aurpegi onik jartzen holakuetan.

Denbora librian zer egittia gustatzen jatzu?

Sozidadera jun eta lagunekin afarixak egittia: kantuan egin,



diarren batzuk etara...

Parrandazalea zara?

Bai; gaztetan hala be, izugarri gustatzen jaten irtetzia.

Zela definituko zenuke zeure burua?

Gizon trankilla naiz; gaztetan, nahiko lotsatixa be banitzan, baina poliki-poliki superatzen noia.

Edozein ekitaldi dala be, zu beti bideo kamerarekin.

Bai, afiziño haundixa daukat. Oin dala 12 bat urte erosi neban, eta ordutik ez dot laga; jendiak enkarguak be egitten dost.

Zenbat bideo zinta daukazu?

150 zinta edo gehixago eukiko dittut. Egixa esan, neuk be ez dakitt ja zer daukaten, ordenau biharko dittut danak.

Tomas Gezalaza

Apainketarako eta industriarako pinturak

Paper margotuak

Moketak eta tapizatuak

Kalegoi 21
 Tf. eta faxa 943 76 64 07
 Poltsikokoa 616 277 999
 ANTZUOLA / BERGARA

Igor eta Txomin



Margoak orokorrean

ANTZUOLA
609 157 131

BERGARA
609 150 164

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
 ANTZUOLA

GAILUR

taberna eta gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
 Tf. 943 78 70 32

Tomas Gezalaza

Zoruen kutxilatu eta barnizaketa

Kalegoi 21
 Tf. eta faxa 943 76 64 07
 Poltsikokoa 616 277 999
 ANTZUOLA / BERGARA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2001eko azaroaren 9a / 74. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea, 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com

Zortzigarren sektorean babes ofizialeko 24 etxebizitza eraikitzeako proiektua aurrera

OXEL EROSTARBE

Udaleko osoko bilkuran zortzigarren sektoreko arau subsidiarioak aldatzea onartu zuten. Lehenagoko arauak aurrez ikusten zutena baino etxe gehiago eraikiko dira. Torrealde inguruan 76 etxebizitza eraikiko dira. Horietatik, 24 izango dira babes ofizialekoak.

Hasiera baten, babes ofizialeko 32 etxebizitza egin behar zituzten zortzigarren sektorean. Lurrak berriro sailkatzerakoan Udalarik geratuko zaion partzelan eraikiko dituzte etxe horiek, beste partzelen jabeen artean desberdintasunak eragozteko. Partzela hori aurrez ikusita zegoena baino txikiagoa denez, 32 beharrean 24 etxebizitza eraikitzea onartu dute barne erreformako plan berezia onartzean.

Babes ofizialeko gain, 52 etxebizitza, 60 aparkaleku publiko, 114 aparkaleku pribatu, berdeguneak eta plaza bat eraikiko dituzte zortzigarren sektorean. Bergaratik eta Salvador zeharbidetik sarrera izango dute bizilagunek.



Datorren udazkenean 76 etxebizitza eraiki eta ingurua urbanizatzeko lanekin hasteko asmoa dauka Udalak.

OSOKO BILKURAN KEXAK IZAN ZIREN

Arau subsidiarioak aldatzeko egindako osoko bilkuran Torrealdeko bizilagunak kexatu egin ziren, elkarri atxikitako etxebizitza egiteko euren proiektua ez delako jende aurrera agertu. Proiektu hori atzera bota du Udalak, lur publiko gutxi geratzen delako. Onartu aurretik, erre-

klamazioak egiteko aukera izango da, buletinean atera eta 15 egunean. Datorren udazkenean etxebizitza eraikitzeako lanekin hastea espero du Udalak.

Hasieran 32 baziren ere, azkenean 24 izango dira babes ofizialeko etxebizitzak

Lur publiko gutxi geratuko litzateke eta, atzera bota dute elkarri atxikitako etxeen proiektua

Datorren urteko udazkenean etxebizitza eraikitzen hastea espero dute

HERRITARREN HITZA / Ana Gillegi • Danka Multimediaiko proiektu arduraduna

Beldurraren askatasuna

Bizitzan hasten dugun bedozer amaiera jakin bat izango duelako hasten dugu. Horrela ekiten diot nik, behintzat, bizitzari; badakit, bai, bidean gauzak aldatu egin daitezkeela. baina helburu bat izateak ekintzari zentzua ematen dio. Bada, oinarrizko parametro hori maila txikietan onartzen bada, maila gorentan zentzu handiagoa duela uste dut.

Liskar bat, borroka bat eta gerrate bat sortzeak ez du helburu interesgarririk, nire ustez, ez baitago aitzakiarik horretarako nire buruan. EEBBetako agintarientzat,

aldiz, errazago da helburua justifikatzea hitz handi eta buru gutxiarekin: munduko terrorismoarekin amaitzea.

Hain zuzen ere, honela ekin zioten beraien gerrate "santu" honi Afganistanen aurka. Hilabete pasatu da, eta helburua hankaz gora dago, hasieratik zentzurik izan ez duen helmuga zuelako.

Bi hilabete hauetan jakinarazi dizkiguten gauzak



"Gerrate bat sortzeak ez du helburu interesgarririk"

"askatasuna bermatzeko" asmoz hasi dira liskar honetan mendebaleko eta ekialde-

gutxi dira, alde bakoitzari komeni zaiona soilik. "Gutxi dakigunok" argi ikusten dugu bi herrialdeetako gizarteek jasaten dutena: beldurra. Beldurrak kentzen dio gizakiari askatasuna. Horren ondorio dira hartzen diren hainbat eta hainbat erabaki. Beldur hori uxatzeko eta

ko herrialdeak. Agintariak helburu argirik eduki gabe ekin diote ibilbideari. Beraien artean nork ezabatu du beldurraren aurpegia? Nork bermatuko askatasuna?

Baina ezin burutik uxatu gurean ere zer zuzendu badugula. Hainbat herritar beldurraren eraginez ez baitira askeak, baina hau, ia-ia egunero bizi dugunez, onartu egin dugu. Egun gutxiaren buruan, Afganistan eta EEBBen artean piztutako suak ez gaitu itzaltzera hurbilduko.

Beldurrarekin bizitzen ohitu gara.

LABUR

Gaur arratsaldeko 19:00etan Gaztaina Erre Eguna

Iluntzerako Gaztaina Erre Eguna antolatu dute Gazte-txekoeak, plazara gerturatzen direnek, sagardoaz lagunduta gaztaina errearek jateko aukera izango dute.

Astean zehar udazkenean inguruko, ohiturak, abestiak eta jolasak ikasten aritu eta gero, arratsaldean gaztainak erre eta jolasak egiteko festa izango dute eskolako haurrek.

Gaueko 22:20etan kontzertuan izango dira, PAM eta Luchando para cambiar.

IRAKURLIAREN TXOKUA

KRITIKEI ERANTZUNEZ

Eskutitz honekin Elgetako Gaztetxe batzarrekuok, 2001eko urriaren 19an Goienkariko 38.zenbakixan, Iban Arantzabal elgetarrak "Gaztetxia Jubilautentzako" titulopian idatzi zeban artikuluko komentarioxuei erantzutia nahi dotzagu.

Goibekokale Elgetako herri aldizkarixa irakurtzeko aukeria euki ez zinuaten ondako, guk Asentzio Eguna antolatziak aurreko pare bat hillabetietan dakan lana beste batzuen esku lagatzeko erabakixan zergaitxixa labur-labur azaltzen saiatuko gara.

Elgetako Gazte Asanbladiak 1995.urtian altzau zeban galduta zeuan egun hau ospatzeko ohiturria, eta sei urte honetan ahalik eta onduen antolatzen saiatu gaz, baiña, herritarren artian Asentzio Eguna dakan garrantzixia zabaldua ikusten douenez, eta bizi gazen gizarteko biharrak ikusitxa, Gaztetxe batek dakazen beste helburu batzuk (gaztien kontzientziatziñua,...)

bultzatzi nahi dou, Asentzio Eguna beste elkarte edo pertsona batzuk antolatziak guri beste ekintza honek aurrera eruateko aukeria emoten dozku, eta hau oso positibua ikusten dou herrixandako. Helburu bat biharran, bi beteko zielako. Gaiñera, guk argi lagatzia nahi dou guk hitzaldi bat, antzerki bat, edozein ekintza antolatzen douenian ez douela sartu leike dianen edadeik finkatzen, ez dou iñoiz mugatu generaziño konkretu batera gaztetxera sartzeko aukeria.

Beste alde batetik, ez dou ulertzen danok Elgetakuak izanda kritikak (beti txarrak) Goibekokale edo Goienkarixan azaltzeko edo juergetan entzuteko biharran, zapatu atsaldero 15:30tan eitxen doun batzarrera agertzen ez dan jendian partetik.

Hau holan ikusitxa eztabaida ireki bat eitxeko asmua dakau, eta honen eguna erabakitzen douenian, jakinarazikou.

ELGETAKO GAZTETXIA

IRAKURLIAREN TXOKUA

Goibekokalen zure gutuna argitaratzia nahi izanez gero, Goibekokaleko buzoian laga edo goibekokale@goinea.com helbidera bialdu.

Beti be, martitzen goiza aurretik bidaltzi komeni da.

ELGETAKO ERMITAK / Tourseko San Martin



OJANGURENGO ERMITATUA Elgetatik Uberararako bidian, Arantzeta ziharrian kokatzen da Tourseko San Martinen ermittia. Gerra denboran hondatuta, Ojanguren basarrixan onduan dago. Neurritz ermitta txikitxua da, 4,9 x 5,6 metro ingurukua. Atriuu ere badauka, 1,7 metro aurreratzen dalarik.

Murugarrenek ermittia 1.625ekua dala diño, bertan dagon irudi gotikua, lehenaukua dala ezagun dan arren. San Martinen irudi gotiko-herrikoia Ojanguren basarrixan gordeta dago. Irudixa benetan politta da eta metro eta erdi neurtzen dau. Irudixaz gain, hau egoten zan horma hillobixa eta ermittako kanpaia ere, gordeta dittue Ojanguren basarriko bizilagunek./OXEL EROSTARBE

KULTURA

Azaroaren 23an izango den *La Garbo S.A.* antzerki lanerako sarrerak saltzen

O. E.

Azaroaren 23an, Markeliñeren *La Garbo S.A.* antzerki lana izango da ikusgai Espaloia Aretoan. Sari ugari jasotakoa da Zornotzako taldearen lan hau. Eserlekua aurrez gorde nahi duenak, udaletxera deitu dezake. 500 pezeta balio dute sarrerak.

La Garbo S.A. antzerki lanak bi kale-garbitzaileen bizipenak batzen ditu. Iñaki Egiluz eta Javier Renobales dira lan honetako protagonistak. Hitzik egin ez arren, ederto azaltzen dituzte lanean bizitako egoerak eta izaten dituzten gorabeherak. Jose Ibarrolak zuzentzen duen antzerki lana, adin guztietako ikusleak

ondo pasa dezaten gertatuta dago.

Kale-garbitzetan diharduten bitartean, lankideen arteko laguntasunaz, gertatutako ezbeharrez, dituzten dohainez eta batez ere dituzten akatsez ohartuko da ikuslea. Antzerki lanak umore puntua dauka. Bukaerako gertaerek ordea, algarak alde batera laga eta hausnarketa egitera eramango dute ikuslea.

SARI UGARI AURKEZTU ZENEAN

Duela bost urte aurkeztu zen jende aurrean Markeliñeren lana.

Aurkezpenean sari ugari jaso zituen *La Garbo S.A.*-k. Besteak beste, Euskal Antzerki Jaialdian, Ikusleen Saria eta Kritikaren Saria jaso zituen. Denboraldiko lan onenaren Arriola Saria ere jaso zuen.



MARKELIÑE

Kale-garbitzaileen bizipenei, umore puntua ematen die Markeliñek lan honetan.



**OSTATU
GAZTETXER**

•Eguneko menua 800 pzta.
•Karta.

Gudarien Bide, ELGETA
Tel: 943 76 80 23

Uriburu UTEK saltzen du:

Domingo Iturbe kalean
ETXABE KOMERTZIALA
Etxe berrien azpian
PREZIO INTERESGARRIAK
943 76 11 23
670 781 759



TAPEM S.A.

Trokelak eta estanzazioa
**TROKEL PROGRESIBOETAN
ESPEZIALDUAK**

Elorrio bide z/g 20690 Elgeta
Tel: 943 76 80 50 / 78 90 31
Faxa: 943 76 82 43

ERRETRATUZAHARRA

Kontxita
andereñoari
omenaldia

Bergarar askok eta askok gogoan izango dute Kontxita andereñoa. Gaur egun Fraiskozuri kalean dauden Avenida edo Antxoni tabernen inguruan Frontoiko Eskola zegoen 1930eko hamarkadaren inguruan. Hantxe, bergarar belaunaldi askok eskolak jaso zituen Kontxita Maiztegiren eskutik.

Benetan lan aipagarria egin zuen Kontxita andereñoak, eta hori eskertu nahirik, haren ikasle izandakoek omenaldia egin zioten 1969. urteko abenduan. Ariznoa jatetxean bazkaria antolatu zuten, eta deialdiak harrera bikaina izan zuen, jatetxea bete egin zen-eta. Bazkalostean, Kontxita andereñoak hainbat opari jaso zituen ikasle ohien partetik. Frontoiko eskolan lanean izan ondoren, San Martin plazako azokako eskolan eta Aranzadi Ikastolan aritu zen lanean Kontxita andereñoa, 1970eko hamarkadaren amaieran erretiratu zen arte.

Erretratuan 1969ko omenaldia antolatu zuen emakume taldea ikus



dezakezue, ezkerretik eskumara: Mari Paz Alberdi, Maria Jesus Larrañaga, Angelita Garmendia, Maite Gallastegi, Kontxita Maiztegi, Sol Telleriarte, Arantxa Agirre, Mariasun Plazaola eta Miren Lonbide.

Argazia: Udal Agiritegia (Lorenzo Laskurain)

ADI, IRAKURLE!


Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero,
BERRIGARA bertara ekar dezakezu.

Irizar jauregian gaituzu, zatoz!

NOLA ALDATU DIRENGAUZAK

Espoloiaren
itxuraldaketa
azken urteetan

Espoloiak sekulako itxuraldaketa izan du azken 30 urteetan. Etxe mordera eraiki dituzte inguruan, eta musika kioskoa dugu berdin-berdin jarraitzen duen elementu bakarrenetakoa. 1980ko hamarkadan, Espoloiko etxe berriak egin zituzten, eta gero, Toki-Eder plazakoak etorri ziren. Etxe berriek hainbat eraikin zahar desagertzeari ekarri zuten.



± 1978 Zabala-Enea etxearen ondoan (Espoloiko iturri ondoan dagoena), Etxaniz-Enea izenekoak zegoen 1970eko hamarkada arte.




2001 1980ko hamarkadaren hasieran, Espoloiko etxe berriak egin zituzten. Ingurua erabat aldatu zen. Frontoia ere eraiki zuten orduan.

Zumelaga
JATETXEA

59 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21



**Manufacturas
LARRAÑAGA**

- Lan-babeserako artikulak
- Seinaleztapena
- Jantziak

Leizeaga 1. BERGARA
Tf. / faxa 943 76 59 53.



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tel. 943 71 24 25
BERGARA

**Zuri Beltz
margoak**

Barnealde eta kanpoaldean
erreforma

Pintura zerbitzu osoa
Moketak

943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59
Bergara

ARAMBURU H O R T Z K L I N I K A

- Odontologia orokorra ✓
- Protesiak ✓
- Ortodontzia ✓
- Periodontzia ✓
- Ezarpenak ✓




Telesforo Aranzadi 1, behea.
943 76 02 46. BERGARA
Ordutegia: 10:00-13:00 eta 15:00-21:00

MILA ESKER URTEBETE HONETAN
GUGAN KONFIANTZA IZAN DUZUEN GUZTIOI.

**GORTASUNAREN
AURKAKO
PREBENTZIO
JARDUNALDIAK**

R.I.P.S. Nº 164/99 I.L.G.

**GONBIDAPENA
AZAROAK 14-15-16an**



**AUDIFONO DIGITAL
BERRIAREN moldaketan
50.000 pta-rainoko
deskontua**

Dohaineko eta konpromezurik gabeko
entzumen azterketa elektronikoa



GAES

ENTZUMEN ZENTRUA

ESKA EZAZU HITZORDUA ALDEZ AURRETIK

**BERGARAN
MULTIOPTICAS LARRAÑAGA**

Ibargarai, 16 - Tel. 943761575 - BERGARA

**ETA JASO
EZAZU
OPARI
EDER BAT!**

GRUPO **RKUZ**

1950-2001




ETXE MOBEL
MUEBLES ALTZARIAK

Araba Etorbidea 5 •
Tel. / Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



RKUZ
ALTZARIAK

Araba etorbidea 20 •
Tel. / Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA



RKUZ
ELETRAGAILUAK

Asunción, 1 •
Tel. / Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

expert

RKUZ
SUHALDE INTEGRALA

Mitarte 3 •
Tel. / Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA

FAGOR

50 urte baino gehiago gure bezeroen zerbitzura.

Eskerrik asko emandako konfiantzagatik